

# Euskadiko Mugimendu Komunista (1969-1991): Historia eta ideologia\*

(Communist Movement of the Basque Country (1969-1991): History and ideology)

Kortazar Billelabeitia, Jon

Eusko Ikaskuntza. Pº de Uribitarte, 10, behea. 48001 Bilbo  
jonkortazar@hotmail.com

BIBLID [1136-6834 (2012), 38; 1079-1109]

Jaso: 2010.08.23  
Onartu: 2012.07.20

---

*EMKri buruzko lan honetan, Euskadiko Mugimendu Komunistaren ideologia, historia eta praxia azaltzen dira; ETArekin V Asanbladak suposatu zuen testuinguru konplexu hartan jaiotzetik, 80. hamarkada nahaspilatsuaren bukaeran, SESBen erortzeak suposatu zuen kommozioaren testuinguruan desagertu zen arte. Lan honetan alderdiak euskal panorama politikoan suposatu zuen berrikuntzaren gakoak aztertuko ditugu, baita ere alderdi horrek izan zituen gorabehera ideologikoak.*

*Giltza-Hitzak: EMK. Sindikalgintza. Langileria. Politika. Gatazka. Komunismoa. Maoismoa. ETA.*

*En el presente trabajo sobre el EMK, se presentan la ideología, historia y praxis del Movimiento Comunista de Euskadi; desde su nacimiento en el complejo contexto que supuso la Quinta Asamblea de ETA hasta su desaparición a finales de la confusa década de los 80 en el contexto de la conmoción provocada por la caída de la URSS. En el presente trabajo analizaremos las claves de la innovación que supuso este partido en el panorama político vasco, junto con sus vaivenes ideológicos.*

*Palabras Clave: EMK. Sindicalismo. Clase trabajadora. Política. Conflicto. Comunismo. Maoismo. ETA.*

*Cet article aborde des aspects idéologiques, historiques et de praxis du parti EMK (Mouvement Communiste Basque), depuis sa naissance dans le contexte de la Ve Assemblée de l'ETA jusqu'à sa disparition dans le sillage de la commotion provoquée par la chute de l'URSS, dans la confusion de la fin des années 80. Les clés du renouveau apportés par le parti au panorama politique basque sont exposées, ainsi que les variations idéologiques dont l'EMK fut le siège.*

*Mots-Clés: EMK. Syndicalisme. Classe ouvrière. Politique. Conflit. Communisme. Maoïsme. ETA.*

---

\* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2009. urteko Ikerketa Laguntza jaso zuen.

## 1. SARRERA

EMKri buruzko lan hau egiten hasi nintzenean, gogo handiz hartu nuen. Izan ere beti izan dut halako mugimenduak, garai baten oso ezagunak eta aktiboak zirenak eta gaur egun erabat ahaztuak direnak, ikertzeko gogoak. Izan ere, EMKren inguruan dagoen bibliografia eskasa, hasieran akuilu bat izan zen niretzat lan hau egiten has nendin.

EMKri buruzko lantxo bat egitea, nahiko erakargarria izan deritzot. Izan ere, haien kartel agresiboak nolabait nire arreta piztu izan ohi zuten, politikaren eta irudimenaren arteko sintesi bitxi horrek azterketarako gai polita ematen zuen. Beste alde batetik, askotan alderdi txikiak (ordezkaritzarik lortu ez zutenak) historiak besterik gabe ahaztu egiten ditu, beraz halako alderdi bat “erreskatatzea” nahiko erakargarria egin zitzaidan.

Gaur egun politikak darabilen logika parlamentarioari begira; parlamentuan ordezkari izatea ezinbestekoa da eragin politikoa izateko. Hau betidanik egia izan bada, are gehiago bihurtu izan da 1991.ean Sobietar Batasuna erori zenean. Izan ere, gaur egun mendebaldean nagusi den sistema politiko-ekonomikoari alternatibak bilatzea ezinezkoa dirudi, halako “berezko onarpen” bat eman zaio sistemari, behin Mendebaldearen sistemarekiko alternatibaren froga enpirikoa, sistema politiko alternatiboa erori eta gero. Herriak, jendeak gaur egun indarrean dagoen sistema zalantzan ez jartzen ikasi du.

Hala ere, lehengo hamarkadetan, sistema honi alternatiba izateko itxaropen handiagoa zegoen. Itxaropen horien parte bat zen EMK. Garai haietan, politika ofizialaren nondik-norakoak zalantzan ohikoago jartzen ziren, ezarritako sistema politiko-ekonomikoaren zilegitasuna ez zen hain eztabaiaezina. Are gehiago gertatzen zen Euskal Herrian, non 1978.eko Konstituzioak ezarritako “demokrazia” inon baino gehiago jartzen zen zalantzan. Erregimen demokratiko parlamentario honen zilegitasun krisi horretan sakontzen saiatuko zen EMK. Herri parte-hartzea, mugimendu sindikala, kontrabotere esparruak, politikarako beste esparru batzuk dira “esparru ez ofizialak” hala nahigo baduzue, eta esparru horietan (izan ere EMK sekula ez zen legebiltzarrean laguntza handia izan zuen alderdi bat izan) eragin handia izango zuen EMKk. Eragin politiko hori zer zen eta frankismoan, trantsizioan eta erregimen konstituzionalean zer nolako baldintzatze gaitasuna zuen ikertzea izan da beste helburu bat.

Trantsizioa aipatu dugunez, halako alderdi txiek trantsizioan aurrera egin zezaten oztopoak nabarmenduko ditugu. Alde batetik, egoera berrira egokitzea falta izan zitzaion, frankismo garaian erresistentzian egonagatik, erresistentziak emandako zilegitasun horrek hauteskondeen zilegitasunarekin talka egin zuenean, EMK bezalako alderdi askoren asmoak hor bertan geratu ziren. Beste alde batetik eta aurrekoari lotuta, egokitzen falta horri lagunduko zion imitazio joera dugu, hau da, atzerriko eredu sozialista bat hartzea (EMKren kasuan maioismoa) eta hori eskema guztietan kopiatu nahi izatea (ezker mutur komunistako alderdi gehienak 70. hamarkadan pairatutako gaixotasuna) dugu; alderdi mota hauen hazkundea moztuko zuena.

Euskal Herrian, EMK, mugimendu ez-abertzale bezala jaioko bazen ere, 70. hamarkada bukaeran eta 80. hamarkada hasieran Ezker Abertzalearen posizioetara hurbilduko zen. Azken finean eboluzio arrunt bat izan zen, Ezker Abertzaleak lortu bait izan zuen Espainiako erregimen konstituzionalari zilegitasuna kendu nahi zion mugimendu edota sektore soziologiko horren abangoardia edo adierazpen politiko arrakastatsuen izatea. EMK eta HB euskal unibertso beraren parte izango ziren edo unibertso berean aurkituko ziren. Azken finean, bi alderdien kultura militante berdina edo oso antzekoa izango zuten, ofizialki zuzendaritzen arteko harremanak zirenak zirelarik.

Bukatzeko, EMKren desagertzearen data (Zutik bihurtzea), SESBen erorpen dataekin bat dator: 1991. urtea. Paradoxikoa da SESB erreferentzia bezala beti ukatu duen alderdi batentzat. Hala ere SESB eta Bloke Sozialista desagertzeak arestian aipatu bezala, kapitalismoarekiko alternatibaren frogaren enpirikoa desagerrarazi zuten, mundu osoko ezkerria zalantza handietan murgilduz. EMKren desagertzea eta beste helburu batzuk zituen alderdi berri batean mutatzeko krisi ideologiko horren barruan sar ditzakegu.

## 2. ETA-REN V. ASANBLADA

ETAren V. Asanblada, Gaztelun, 1966.eko Abenduaren 7aren eta 11ren artean emango da eta bertan izango da ETA-Berri adarra (gero EMK emango zuena) erakundetik kanporatua. V. Asanbladan, Patxi Iturriotz eta bere jarraitzaileek bul-tzatutako joera berriak, erakundearen barnean bere planteamenduak plazaratu-ko ditu, eta horretxegatik, beste joeretako jarraitzaileek euren aurkako oso joera gogorra erabiliko dute. Asanblada hau oso gogorra izango da, eta bertan hiru iri-tzi talde ezberdin azalduko dira; hauek:

1. Iturriotzek eta bere *aldekoek* (Eugenio del Río, Angel Uresberueta...) zuzendutakoa, Bulego Politikoan indartsua zena. Joera hau, marxismoaren hurbilekoa zen (oraindik ez zen marxista-leninista, joera hori 1968. ean hartuko zuten eta are gutxiago maoista, hori 1969. ean etorriko bait zen) eta aldi benean, euskal nazionalismo klasikoarekiko urrunekoa. Joera honen eragin ideologiko nagusia, momentu honetan Europako zenbait gune intelektualetan modan zegoen “Ezker berriko” joera izan zen (Frankfurtoko Filosofi Eskolak eragindua, marxismoaren analisia batez ere kapitalismoak gainestrukturan ekarri zituen aldaketan aztertzen zituena, eta honi jarraiki, estrategia iraultzaile zuzen-zuzenekoa estrategia gradua-lista bategatik ordeztu nahi zuena)<sup>1</sup>. Esan bezala, oraindik momentu honetan, sektore honen iparroratz ideologikoa ez zen marxismo-leninismoa ez maoismoa.

---

1. “Ezker Berria” garai horretan Europan oso modan zegoen ideologia izan zen, batez ere talde intelektualetan artean. Ikuspegi marxista batetik, nahiko ideologia heterodoxoa zen, iraultzaren ordez, estrategia gradualista planteatzeaz gain, kapitalismoaren eta gizartearen analisi filosofikoek (masen baldintza materialak kontutan hartu ez ezik “adimen kontrola”, “propaganda” eta abar, azken finean gainegitura aztertzeak), marxismoaren ikuspegi klasikoarekin puskatu egingo zuten. Ideologia hau, gero EMKk hartuko zuen maoismoarekin erabateko kontraesanean zegoen.

2. "Euskal sozialismoaren" aldekoa, bertan, Txillardegi eta bere jarraitzaileek agertuko direlarik, tartean, Xabier Imaz, Juan Jose Etxabe eta abar. Joera honen arabera, euskal nazionalismo klasikoa onuragarria da, baina hala ere, orduko egoerara egokitu behar zen. Joera hau erabat anti-espainolista eta anti-marxista zen, "sozialismo humanista" proposatuz. Hau dela eta, aurreko joeraren erabat aurkakoa zen, hori, espainiar alderdiekiko menpekotasuna eta "espainiar-iparraldetasuna" (*northernism*) leporatuz.
3. Ikuspuntu aunitzetatik, eta *corpus* teoriko sendoren faltan, hala nola, marxismo-leninismoa eta abertzaletasuna elkartu nahi duten pertsona guztiak batzen zituen joera. Hemen, marxismoaren eta independentziaren inguruan nolabaiteko elkartasun bat aurkitzerik bagenuen ere, ez zegoen ez ideologia konkreturik, ez estrategia zehatzik, ikuspuntu aniztasuna baizik (trotskismoa, maosismoa, komunismo ortodoxoa, estrategi anti-koloniala, anti-inperialista...). Honek azaltzen du, zergatik, joera hau nahiz eta V. Asanblada honetan nagusia izan, gerora (VI. Asanbladetan) ETAREN baitako zatiketen protagonista; joera hau berbera izan zen. Joera honetan, euren inguruan onarpenik handiena pizten zutenak eta moduren batean "lider" (hitzen bat erabiltzearentzat) bezala identifikatu ahal ditugunak, Etxebarrieta anaiak zango ziren. Kontutan hartu behar dugu, aurreko urteetan, sektore honi nolabaiteko ekarpenak egin zizkion José Luis Zalbidetik bere *Bases para la Guerra Revolucionaria en Euskadi* liburuan eta bai Federiko Krutwigek bere *La Cuestión Vasca* liburuan. Esan bezala sektore hau izango zen nagusi eta erakundearen hurrengo urteetako ibilbidearen muina. Momentuz sektore honetakoak biltzen zituena "iraultzaile eta abertzale" bezala deitza zen.

Asanbladaren antolatzaileak, José María Eskubi Larraz "Bruno"<sup>2</sup>, eta honen lagun hertsiki Xabier Bareño eta Bilbao Barrena izan ziren, "hiru mosketariak" izenez ezagutuak izango zirenak. Patxo Unzueta<sup>3</sup>ren arabera, Irailean sartuko ziren Hego Euskal Herrira, Asanblada antolatzen hasteko asmoz. Unzueta<sup>3</sup>ren arabera, lehenbizi Bruselan, Federiko Krutwig eta Julen Madariagarekin kontaktu bat izango zuten<sup>4</sup>, Asanblada honen azken ñabardurak (estrategia eta beste zenbait gauzaz buruzkoak) zehazteko. Txillardegiren arabera, hemen jaioko zen joera "marxista-leninista abertzalea", izan ere, belaunaldi zaharreko estrategia antkolonialista eta antiinperialistak (Madariaga eta Krutwig); eta belaunaldi gazteko estrategiak, euren abertzaletasuna, Lehen Munduko herri industrializatu batetan gertatzen ari zenaren jakitun ziren estrategia berriak (Eskubi, Bilbao Barrena eta Bareño).

---

2. Eskubi Larrazek, lasterrean, hemen mantendutako posizioak ukatu egingo zituen, eta VI. Asanbladan, fakzio ultratrotskista baten, hots, Zelula Gorriak-Saioak taldean sartuko zen, non ETAREN (ez bakarrik ETA-V, baizik eta ETA-VI talde trotskistarena ere bai), abertzaletasuna gogor kritikatu zituen.

3. UNZUETA, Patxo. "La V Asamblea de ETA". In: *Saioak* aldizkariko 4 zenbakian, 1980; 27 orr.

4. UNZUETA, Patxo. "La V Asamblea de ETA". In: *Saioak* aldizkariko 4 zenbakian, 1980; 28-29 orr.

Patxo Unzueta jaramon eginez, Jesus Maria Bilbao Barrenak eta Eskubi Larrazek, Asanblada honetarako txostena idatzi zuten, *Txosten Orlegia*<sup>5</sup>, Bruselako batzarraren ondorioak biltzen zituen<sup>6</sup>. Txosten hau lehenbizi, Ipar Euskal Herrian, errefuxiatu bezala zeuden militanteei pasatu behar izan zieten, eta gero, Hego Euskal Herrian zeudenei. Deuston militante gazte batzuekin izandako batzar baten banatua izango zen lehen aldiz, batzar horretan, ETAko buru izango ziren zenbait militante aurkituko ziren, hala nola, Txabi Etxebarrieta, Goio López Irasuegi eta "Alberto Buendía"<sup>7</sup>.

Kontaktu hauek, kanpoko (Bruselako) zuzendaritzaren artean halako ezinegon bat piztuko zuten, are gehiago, "hiru mosketariak", Iturriotzen taldea kalera-teea baino konbentzitea nahiago zutela jakitean. Gainera, Madariagak eta Krutwigek ez dakite *Txosten Orlegiaren* berrikusketei buruz, beraz urduri jarriko dira<sup>8</sup>. Madariaga Donostiara joango da eta bertako militante batzuekin batera, Bulego Politikoaren aurkako idatzi bat egingo du. Idatzi honetan, Bulego Politikoaren partaideak "traidore" eta "español inperialista" bezala tratatzen ditu. Gainera, Asanblada hasi aurretik bota nahi ditu Iturriotzen aldekoak, Bulego Politikoa deuseztu eta Asanblada Abenduaren 17rako Hegoaldetik kanpo konbokatatu. Hala ere, proposamen hauek ez dute batere entzuterik ETAko gainontzeko kideen artean. Hala ere: gehienak Patxi Iturriotz "Mixel" eta Bulego Politikoa kanporatzearen alde azalduko dira, ezadostasunak Asanbladaren dataren inguruan daude. Madariaga, haserretu egingo zen bere proposamen hauek onartuak izan ez zirelako eta horretxegatik Baionara itzuliko zen eta ez zuen Asanbladan parte hartuko<sup>9</sup>.

Iker Casanovak, bere liburuan beste bertsio bat eskaintzen digu. Casanovaren arabera, Bulego Politikoaren (Iturriotzen taldea) posizioak erakundearentzat asumitzeko ezinezko izan ziren, bai sektore nagusiak zein Txillardegik zuzendutako sektoreak Bulego Politikoarekin ezinegona izan zuten. Iker Casanovari jaramon eginez gero, ETAREN Komite Exekutiboak Bulego Politikoa kanporatzeko erabakia ahobatez hartu zuen<sup>10</sup>. Izan ere, ETAREN baseen artean, Bulego Politikoko kideek, ESBA<sup>11</sup> (Euskal Sozialisten Batasuna, FLP edo Frente de Liberación Popular taldearen euskal adarra) alderdiarekiko zuten harremanaz mesfidantza

---

5. *Orlegia* izena, txostena inprimatzeko paperak eman zion txostenari. *Txatarra txostena* ere deitzen zen, Jose Antonio Etxebarrieta "Txatarra" goitizenez ezagutua bait zen. Bere izenburu ofiziala *Análisis y crítica del españolismo social-chauvinista* zen

6. UNZUETA, Patxo. "La V Asamblea de ETA". In: *Saioak* aldizkariko 4 zenbakian, 1980; 30-31 orr.

7. "Alberto Buendía", Patxo Unzueta bera zen.

8. UNZUETA, Patxo. "La V Asamblea de ETA". In: *Saioak* aldizkariko 4 zenbakian, 1980; 29 orr.

9. UNZUETA, Patxo. "La V Asamblea de ETA". In: *Saioak* aldizkariko 4 zenbakian, 1980; 29 orr.

10. CASANOVA, Iker. *ETA 1958-2008. Medio siglo de Historia*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea, 2007; 76 orr.

11. Euskal Sozialisten Batasuna, Espainiako FLP Frente de Liberación Popular delakoaren adarra zen. Talde hau ez zen abertzalea, Estatu osorako estrategia bateratu baten aldeko baizik. Talde honen ideologia, "Ezker Berrin" horretatik hurbil zegoen, marxismoaren eta humanismo kristauaren sintesi bat bilatzen zuten.

handia zegoen, ETA erakunde horrekin bat egin edo horretan integratu nahi izango balute bezala. Izan ere, Bulego Politikoko kideek ESBA taldearen eragin handia zuten.

"Mixelen" kanporaketarako dokumentuaren dataren gainean ez daude gauzak oso argi. Orain arte, Azaroaren 20ean Mutrikun Komite Exekutiboak egindako bileran hartua izan zela uste izan da, eta hau da data "ofiziala"<sup>12</sup>. Halere, Jon Nikolasek, Iturriotzen aldekoa zenak, Azaroaren 27tik Abenduaren 3ra hartua izan zela erabakia, eta Abenduaren 5ean Iturriotzi jakinarazia izan zela dio. Patxo Unzuetak data honi sinesgarritasun handiago bat ematen dio. Dokumentuak, bai, Azaroaren 20ko data du, baina ez dago argi proposamen bat edo erabakia izango zen. Hordago argialetxearen arabera, kanporaketa dokumentua zen, gero Mutrikuko batzar batean "Mixeli" entregatua izan zena. Dokumentu hau, José Antonio Etxebarrietak, "Txatarrak", idatziko zuen. eta "Txatarra Txostena"<sup>13</sup> bezala ezagutua izango zen. Txosten honetan, honako hau leporatuko zioten Bulego Politikoaren jarraitzaileei:

1. *Ikuspegi utopikoa*: 1966.eko Euskal Herriko baldintza ekonomikoak kontutan hartzen ez dituelako.
2. *Ikuspegi ukronikoa*: Iraultza bloke oso baten parte bezala hartzen duelako, eta ez duelako euskal burgesia ttipiarekiko izan behar den behin-behineko aliantza aintzat hartzen.
3. *Ikuspegi ez nazionala*: Nazio kontraesanak iraultzarako palanka bezala erabiltzearen borondaterik agertzen ez zuelako, baizik eta gainditu beharreko oztopo bat bezala.
4. *Ikuspegi erreformista*: Lan politikoaren barnean, sindikalismoari gehiegizko garrantzia emanagatik, eta konfrontazio estrategia leninistak alboratzearen, Europako Ezker Berriaren "erreforma iraultzaileen" politika erabili nahi izatearren. Sindikatu Bertikalerako hauteskondeetan parte hartzea nahi izatea, erreformismo honen erakusgarria izan zen.
5. *Erakundearen diziplinaren aurkakoa*: ETA, ezkerreko fronte zabal zehaztugabe baten "urtu" nahi izatearren.
6. *Ikuspegi bakezalea*: Borroka armatuari muzin egitearren eta bakearen estrategia erabili nahi izatearren.

Hala ere, Patxo Unzuetaeren arabera, "Txatarra txosten" honen ezaugarriarik markatuena, ez da ortodoxia boltxebikea, espainolismoaren aurkako joera baizik.

---

12. CASANOVA, Iker. *ETA 1958-2008. Medio siglo de Historia*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea, 2007; 76 orr.

13. Bere izenburu ofiziala *Análisis y crítica del españolismo social-chauvinista* zen.

Hala ere "Txatarra txostenaren" kopiarik aurkitzen ez denez, zaila da hau gaur egun jakitea.

Behin Asanblada Gazteluko elizan elkartua izan zenean<sup>14</sup>, argi geratu zen bi azken joera hauek Bulego Politikoaren aurka, *de facto* aliantza bat egin zutela. Asanbladan gertatu zen lehen gertaera, Asanbladako lehendakaria aukeratzearena izan zen, eta Txabi Etxebarrieta aukeratu zuten, Txillardegiaren aldeko Xabier Imazen ordeiz. Hala ere, behin hau iraganda, bai Etxebarrietak zein Imazek antzeko jarrera izango zuten Bulego Politikoko "espainolisten" aurka aritzean. Izan ere, bi jarrerak izango zuten aurrekoa arbuizatzerakoan jarrera bortitz bat; batzuk "espainolista" eta "abertzaletasunik gabekoa" zela esanez, eta besteek "erreformista" eta oportunistak" zelakoan. Honela Asanbladan, Iturriotzen aldeko taldeak ez du defendatzeko beta handirik izango, eta laster modu nahiko polemiko baten bitartez kaleratua izango zen. Izan ere, talde hau, bere buruzagiak (Bulego Politikoa) Mutrikun kanporatuak izan ostean, gutxiengo argi batean zegoen, eta bere ponentzia *Por una izquierda socialista revolucionaria vasca* ez zen ezta eztabai-datua izango<sup>15</sup>.

Asanbladan ez zen egon belaunaldi zaharreko inor ere ez. Xabier Imaz "Miguel" izan ezik, eta IV Asanbladako militante gutxi ere egongo ziren<sup>16</sup>. Iturriotz eta Bulego Politikokoak ere ez zeuden aurretik kanporatuak izan bait ziren (ez ordea euren jarraitzaileak, zeintzuek Asanbladan parte hartu zuten eta berau eragintzen saiatu ziren) Hala ere, Patxo Unzuetak, batzuekin besteekin baino kontu handiagoa erabili<sup>17</sup> zitekeela sumatzen du. John Sullivan, ordea, urrutiago helitzen da, eta bere liburuan, Asanbladaren antolakundea, Eskubiren asmoen fruitu zela jakinarazten du, nola Eskubik Iturriotz eta Del Ríoren aurka intelektualki aritzeko jende falta aurkitu zuen (agian Etxebarrieta anaien salbuespenarekin), bere asmoa, gehiengo bat bilatzea izan zen, askotan Asanbladarako ordezkariak irizpide pertsonalen arabera aukeratu<sup>18</sup>. Antonio Elorzak ateratako liburuan, José María Garmendiak, Iturriotzen aldeko taldea kanporatzearen erabakia, Asanblada gertatu aurretik emanda zegoela esaten du<sup>19</sup>. Hau egia izan ala ez, badirudi Garmendiaren datuak pixka bat kokapenez kanpo daudela, izan ere, lehen aipaturiko Donostiako Taldeak emandako iritziak, Asanbladan bertan eman zirela esaten du. Garmendiak, Sullivanek bezala, Asanblada honetan, Iturriotzen aldekoak

---

14. Gazteluko apaiza, Lukas Dorronsoro, ETArekin aldekoa eta gero kidea izango zen

15. Iker Casanovaren datuen arabera, Asanbladako 42 partaidetik 12 bakarrik ziren joera honen aldekoak Aipatutako liburuan; 77 orr.).

16. Emilio López Adán "Beltza" eta Gonzalo Fontaneda arabarrak ere ez ziren egongo, badirudi koordinazio hutsegite batzuek eraginda.

17. UNZUETA, Patxo. "La V Asamblea de ETA". In: *Saioak* aldizkari 4 zenbakian, 1980;32-33 orr.

18. SULLIVAN, John. *El nacionalismo vasco radical 1959-1986*. Paracuellos del Jaraman, Madril: Alianza Editorial, 1986; 64 orr.

19. ELORZA, Antonio eta beste. *Historia de ETA 4*. arg. Madril: Temas de Hoy, 2000.eko Urria; 125-128 orr.

despistatzeko "tranpak" erabili zirela uste du<sup>20</sup>. Liburu berdinean, Gurutz Jauregik, Asanbladako partaide batzuek, Asanblada bera utzi nahi izan zutela esaten du.

Hala ere, Jauregik uste duenaren auka, badirudi Bulego Politikoaren jarraitzaileak Asanbladan kanporatuak izan zirela, eta behin kanporatuak izanda, Asanblada abandonatu izan nahi zutela, baina segurtasun arrazoiengatik barruan egotera behartu zituztela gehiengoaren aldekoek<sup>21</sup>. Asanblada barnean, tentsio handia egongo da batzuen eta besteen artean, izan ere bigarrenak gela aparte batean daude, asko zabaldutako bertsio baten arabera, pistolaz buruan egotera beharturik<sup>22</sup>. Iker Casanovak bertsio hori gezurtatu egiten du, Iturriotzen aldekoak Asanbladan egotera indarrez behartu ez zirela dio, bere arabera behin Asanbladan galdu ostean aterako ziren ETatik, ez Asanbladak iraun zuen bitartean<sup>23</sup>. Gertaera horiek nahiko ilunak eta nahasiak izan ziren modu borobilean gauza bat ala bestea baieztatze baina argi geratu zen Bulego Politikoa defendatzen zuen taldeak galdu egin zuela.

ETari buruzko espainiar historiografia ofizialak (askotan 78.eko Konstituzioa defendatzen duten antifrankista eta ezkertiarrek osatua), V Asanbladako akordioak eta Iturriotzen aldeko taldearen kanporaketa ETaren barnean "nazionalismo erradikalak" "langileen aldeko joerari" edota "sozialismo ezkertiarri" "beti gain hartzen" dionaren frogara bezala hartzen du. Egia da Iturriotzen taldekoek hasieran horrela planteatu zutela auzia, eurak ETaren barneko "joera obrerista" izango balira bezala. Historiografia ofizial horren egileak, askotan ETako kide ohiak zirelarik, erakunde honi "ezkerreko" ideologi zilegitasuna kendu nahi diote, "euskal nazionalismo etniko" bat bezala deskribatu nahian, edota Sabino Aranaren eta ETaren arteko jarraikortasun historiko bat eginez. Hala ere, gure ustez, banaketa horrela interpretatzeak, irakurketa ximpleegia egitea dakar. Izan ere, bai *Txosten Orlegian*, zein *Txatarra Txostenean* zein *Bases Ideológicas* txostenean, hiruretan, "espainolismoa" leporatzeaz gain, "erreformismoa" ere leporatuko zieten Bulego Politikoko buruei. Egia da abertzale "kulturalistak", nazionalismo klasikoarekiko hurbilekoak zirenak (Txillardegik eta Xabier Imazen jarraitzaileak), Iturriotzen taldearen kanporaketarekin ados egongo baziren ere, egia da baita ere kanporaketaren alde zegoen beste joerak, Xabier eta Jose Antonio Etxebarrieta anaien hurbilekoak Iturriotzen taldeari egingo zion kritika askoz ere zabalagoa zela. Izan ere, talde honek, Iturriotzen taldeari leporatzen zizkion arazoaren artean, abertzaletasunaz gain, ezkerreko lerro politikoaren inguruko kritikak ere egiten zizkion, hala nola, estrategia iraultzailearen ingurukoak edota marxismoa alde batera uztearen ingurukoak. Kontutan izan behar dugu, sektore hau izan zela ETaren nondik-

---

20. ELORZA, Antonio eta beste. *Historia de ETA* 4. arg. Madril: Temas de Hoy, 2000.eko Urria; 125-128 orr.

21. Ikuspegi hau, egile askok azpimarratzen dute, hala nola, Patxo Unzuetak (aipatutako liburua; 33-34 orr.), LETAMENDIA, Francisco "ORTZI". *Historia del Nacionalismo Vasco y de ETA (lehen liburuxka)*, Kriselu argitaletxea 1992; 309 orr., zein BRUNI, Luigi. *ETA: Historia política de una lucha armada* Tafalla: Txalaparta 1988.eko Otsaila; 75 orr.

22. Patxo Unzuetak, espioitza saiakerak ere aipatuko ditu (aipatutako liburua, 33-34 orr.).

23. CASANOVA, Iker. *ETA 1958-2008. Medio siglo de Historia*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea, 2007; 78 orr.



norakoak gidatuko zituen sektorea (“kulturalistek” 70. hamarkada hasieran erakundea utzi egingo zuten), beraz “nazionalista erradikalak sozialista iraultzaileen edota marxisten aurka espainolismoa zela eta” irakurketa hori egitea zuzena ez dela eta are gehiago interesatua dela deritzot. Iturriotzen taldea galdu zuen arrazoia beste bat ere izango zen, geroago EMKren praxian oztopo larri bat izango zena, kanpoko egoerak edota ereduak imitatu edo kopiatu nahia, kanpoko eredu bat idolatratuz eta panazea bezala hartuz, egoera konkretuaren analisi konkretuari huts egitea. V Asanbladan, Iturriotzen taldeak, “Ezker Berria” zuen panazea bezala, geroago EMKk maoismoarekin egingo zuena. Ez da kasualitatea *Txatarra Txostenean* talde honi “utopia” eta “ukronia” leporatu izana.

Asanblada hau, 11an igande arratsaldez bukatuko da<sup>24</sup>. Besterik gabe, *Posiciones Ideológicas de la V Asamblea* izeneko txostena onartuko da, zeinek bi joera garailen arteko oreka bat irudikatuko zuen (Xabier Etxebarrieta marxista abertzaleen aldetik eta Xabier Imaz sozialista-kulturalisten); hala ere lehenaren aldeko joera nabarmena zen, bai dokumentu hori bere posizioetatik hurbilago zegoelako eta bai asanblada osteko dokumentuetan joera horren ideologiaren zantzu argia izango zutelako. Hala ere, aliantza hau, V Asanbladaren bigarren zatirako (1967.eko Martxoa) puskatu egingo da, eta Xabier Etxebarrieta “Txabiren” ikuspegiak erabat nagusi izango ziren, tartean Euskal Herri Langilearen (Pueblo Trabajador Vasco) kontzeptua.

Bere aldetik, Bulego Politikoaren joera erabat kanporatua izango zen erakundetik, eta laster ETA-Berri, izena hartuko zuen, V Asanbladan gailendutakoari ETA-Zaharra deitzen ziotenaren antagoniko bezala<sup>25</sup>. Izen hau ETAREN zilegitasun historikoa gordetzeko hartu zuten (izan ere ETA-Berriko zuzendari asko banaketaren aurreko ETAREN zuzendariak izan ziren). ETA-Berri laster Komunistak deituko da, eta aldizkaria, *Zutik!*, hortik gutxira *Gora* izenez agertuko da, gero *Komunistak* deitzera pasatuko da, eta azkenik, *Zer Egin?* 1969.ean “Movimiento Comunista Vasco” izango zen deitua, eta 1972.ean beste antzeko mugimendu batzuekin bat eginaz, “Movimiento Comunista de España” izena hartuko zuen, bere euskal adarrak EMK izena hartuko zuelarik. Jada, erakunde berri honen ideologia argi eta garbi maoismoa zen.

### **3. LANGILE MILITANTZIA ETA SINDIKALISMOA FRANKISMOAREN PEAN (1970-1977)**

Behin ETAtik aldendurik, EMKren militantzia, batez ere langile mugimenduan eta ikasle proletarizatuen<sup>26</sup> artean gailendu zen. Izan ere, hasierako zalantza ide-

---

24. Bulego Politikoaren jarraitzaileak, kanporatuak izan direnak, goizez utziko zuten Gazteluko eliza.

25. Luza gabe, ETA-Zaharra, soilik ETA bezala bakarrik ezagutua izango da.

26. Javier Villanueva eta Álvaro Gurrea, mota honetako militanteak izan ziren, Deustuko Unibertsitatean ikasle bezala zenbiltzala, EMKrekin harremanetan hasi ziren, eta gero langileria pasa ziren (Villanueva bezalaxe) edo militantziaren arabera kartzelara joan ziren (Gurrea bezalaxe). Gerora alderdi barruko lanak egiten hasi ziren, *liberatu* bezalaxe.

ologikoak alde batera utzirik, 1968.ean Komunistak taldeak eginiko marxismo-leninismoaren onarpenak<sup>27</sup> eta urte bat geroago, Mao Tse Tungeng Pentsamenduaren<sup>28</sup> hartzeak, langile girora bultzatu zuen Komunistak, gero, Euskadiko Mugimendu Komunista izango zena. Izan ere, 1978ean, José María Maravall jaunak honelakoa esan zuen: "Euskadiko langile siderurgikoen mugimendua, Espainia osoko militanteena da". Argi dago beraz, hamarkada honetako langile mugimendua oso indartsua izan zela Euskal Herri osoan. Baina nola azter dezakegu EMKren papera honen baitan? Zenbaterainoko pisua izan zuen EMKk euskal langile mugimenduan?

Hasteko goazen, Pedro Ibarra Güellek ematen duen azterketari errebasoa egitera. Pedro Ibarren azterketa egiteko molde<sup>29</sup> oso garrantzizkoa izan da, izan ere José Vicente Iriartek, bere liburuan, Pedro Ibarrena, frankismoa aztertzeko izan den liburuetan, erreferentziazko liburu bat izan dela dio, liburu berrien artean pausua markatzen duena<sup>30</sup>.

Pedro Ibarren arabera, langile gatazka gertatzeko testuinguru bi aurkitzen dira: alde batetik Ibarrek normalizat, jotzen duen testuingurua, eta beste alde batetik gatazka testuinguru alternatiboa<sup>31</sup>. Normalizat jotzen duen testuinguruan, langileak sindikatu legeetan antolatzen dira, grebak ezohikoak eta gehienetan ekonomikoak izaten dira eta grebaren aurretik eta geroztik, lantoki barneko negoziazioa ematen da, hau da, patrioaren eta sindikatuen arteko negoziazioa. Hala ere, 1967.ean Euskal Herrian eman zen testuingurua, ezin daiteke inolaz ere, testuinguru normalizat hartu; izan ere, frankismoa bezalako erregimen bat, alderdi politikoak debekatzen zituelarik eta jarduera politiko oro jazartzen zuelarik, ezin daiteke gatazka marko normalizat hartu. Frankismoa, Pedro Ibarrek, "marko alternatibo" sailkapenaren barnan sartzen du. Izan ere, frankismoaren barne eboluzioak, 1967.erako Estatu industrial autoritario bat eratu zuen Espainian, eta modu honetan, Sindikatu Bertikala, Central Nacional Sindicalista deiturikoa zen legala zen sindikatu bakarra, beste guztiak kanpoan geratzen ziren. Esan beharra dago, sindikatu hau, legala zen bakarra izaki eta langileak eta enpresariak batzen zituenez, lan arloan Gobernuak zuen "transmisio lokailu" bat zela, langile gatazkak itozteko eta Gobernuaren asmoak errazteko. CNS ez zen langile plataforma bat; baina moduren baten, langileak sistemaren barnean enkarratzeko, langileei enpresa kontsultora zerbitzuak eskaintzen zien, langileak "honek zeozertarako balio du" pentsa zezan eta aldi berean, langileak pertsona

---

27. Egileak, Javier Villanuevarekin izandako elkarrizketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia)

28. Maoismo hitza geroago azalduko zen. Izan ere, Txinako Herri Errepublikan sekula ez da erabili *maoismo* terminoa, bai ordea *Mao Tse Tungeng Pentsamoldea*

29. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 26-35 orr.

30. IRIARTE, José Vicente. *El Movimiento Obrero en Navarra (1967-1977)*. Iruña: Nafarroako Gobernu, 1995; 18 orr.

31. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 28-30 orr.

bakar bezala ekin zezan, kolektibo bezalaxe sekula ekin beharrean<sup>32</sup>. Pedro Ibarren arabera, 1967 eta 1977 artean, langile greben eta istiluen areagotzea edo gutxiagotzea ez zen eman arrazoi ekonomikoen arabera, beraz horretxegatik, ezin da baieztatu frankismoaren testuingurua, lan testuinguru normal bat denik.

60. etako hamarkadan, lan baldintzak eta testuinguru soziala erabat aldatuko ziren, eta industri mailan, enpresariak gehiago inbertituko zuten. Modu honetan, langileen grebak asko ere gehiago haziko ziren. Ibarra Güellek eta Iriartek, arrazoi sorta bat ematen dute, testuinguru sozialaren aldaketari loturik, guzti hau azaltzeko.

Alde batetik, orduko frankismoaren egitura politikoa oso kamutsa zenez gero, langileekiko zilegitasun oso gutxi zuen. Gainera Errejimen frankistaren zilegitasuna, langileen kontra eraiki zen moduren batean, langileen alderdi eta sindikatuek ("rojos") zuten eragina moztu nahian eta erakunde hauetako kideak zigortu eta askotan erail egin zituen Kolpe Militar baten ondorioz. Nahiz eta erregimenak berez langilearenak ziren erakundeak (PSOE, PCE, UGT, CNT eta Euskal Herrian ELA-STV), ustez "langileenak" ziren erakunde eskuindar eta faxistez ordezkatu nahi izan (Central Nacional *Sindicalista*. Juntas Ofensivas Nacional *Sindicalistas*. Auxilio *Social...*) erregimenak erabili zuten populismo honek sekula ez zuen langileen artean entzute handirik izan. Gainera greba egitea (eta greba bati buruzko propaganda zabaltzea) ilegala zenez gero, Sindikatu honek edozein gatazkaren aurrean patronalaren aliatu bezala jokatzeko zuten. Beraz, langileria, 1970. erako arras ohartua zegoen hobekuntzak lortu nahi baziren Errejimenaren erakundeak eta are gehiago egitura aldatu beharra zegoela<sup>33</sup>.

Aldi berean, aurreko urteetako grebek, 1958. ean Hitzarmen Kolektiboetarako Legea plazaratzea ahalbideratu zuten. Nicolás Sartoriusen arabera, hitzarmen hauek lortzea nolabaiteko aurrerapen bat izan zen, "langileei hobekuntzak lortzeko beste tresna bat"<sup>34</sup>. Hala ere, hain atzeratuak egonagatik, garai hauetan, askotan laguntza bat baino oztopo bat izan ziren langileentzat. Modu honetan, enpresa barruan guztiz inkompetenteak ziren kargu batzuk sortu ziren, Enpresako Juradunak, zeintzuek Administrazioari oso lotuta egonagatik ez zuten ia-ia erabakitzeke modurik eta askotan ere ez zuten ordezkartzarik.

Sindikalarik erakunderik zaharrenak, hala nola UGT, CNT eta ELA, errepresioak oso jota zeuden eta egoera berriari erantzuteko gaitasunik gabe aurkitzen ziren. Honela; erakunde hauetatik kanpo, langile erakunde elizkoi batzuk sortu ziren, hala nola Ekintza Katolikorako Langile Anaitasuna (HOAC) edota Kristau Langile Gazteak (JOC). Hala ere, garrantzi handiko lehen erakunde berria, Langile Komi-

---

32. IRIARTE, José Vicente. *El Movimiento Obrero en Navarra (1967-1977)*. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1995; 48-50 orr.

33. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 31 orr.

34. Nicolás Sartorius *El resurgir del movimiento obrero*, Laia, Bartzelonan 1975ean; (33 orr.) in: IRIARTE, José Vicente. *El Movimiento Obrero en Navarra (1967-1977)*. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1995; 51 orr.

sioak izan ziren (CC.OO). CC.OO, Bizkaian eta Euskal Herrian, 1962.ean sortuko zen, Bizkaian gertatuko zen greba baten ondoren<sup>35</sup>. Hemendik aurrera, langile mugimenduak erakunde honen inguruan pibotatuko zuen, eta hainbat eta hainbat ezkerreko taldek CC.OOren barnean lan egingo zuten, nahiz eta hegemonia PCEk eduki. CC.OOren helburua hasieran, langileei nolabaiteko zilegitasuna izango zuen erakunde bat eskaintzea izan zen, eta hasieran, bateratasun bat bilatzen zuten. Hala ere, bazeuden gero CC.OOen lan egingo zuten beste erakunde batzuk, adibidez Nafarroan, 1960.ean Alianza Sindical de Trabajadores<sup>36</sup>, gero ORT bilakatuko zena, edota jesuitek fundatu zuten Vanguardia Obrera taldea<sup>37</sup>. Langile Komisioak Nafarroan, 1968.ean sortuko ziren<sup>38</sup>, eta hasieran, Sindikatu Bertikalak antolatzen zituen hauteskunde sindikaletan parte hartu behar zela esaten zuten. Hala ere. 1966.ean CC.OOk bere bateratasuna galdu egingo zuen, eta lehen barruan zeuden erakunde asko (USO, ELA) CC.OOtik aldenduko ziren<sup>39</sup>. Gainera UGT eta ELA Komisioen aurkako politika bat eramaten hasi ziren, Komisioetatik at, Enpresa Komiteak sortzen hasiko ziren. Pedro Ibarraren arabera, 1967.eko greba orokorraren ostean, CC.OO. errepresioak jota geratu zenez gero, UGTk CC.OOekin bukatzeko behin betiko parada izugarria ikusi zuen<sup>40</sup>. Hala ere 1969.erako, Enpresa Komite hauek (UGTrenak) indarra galtzen joango ziren. Izan ere, PCE eta orduan kontrolatua zuen taldeak, Oposición Sindical Obrera taldeak, CC.OOren aldeko jarrera hartu zuen eta modu honetan, UGT eta Komiteen aurkakoa. Izan ere PCE saiatu zen, UGTri hertsia zegoen Enpresa Komite izena asko agertu ez zedin.

### **3.1. Zein jarrera izan zuten ETA-Berrik eta EMKk langile mugimendu berriaren aurrean?**

Jakin behar dugu, ETA-Berrik Gipuzkoako Langile Komisio Probintzialean indar handia zuela, ia hegemonikoa bihurtzeraino. Hala ere, Bizkaian, bere anai etsaia zen ETA-Zaharrak ez bezala ez zuen CC.OOren aldeko hautu argirik egin; CC.OOren berpizte mugimendua, Komiteekin batera bateratu nahi bait zuen. Izan ere, bizitza laburreko talde honek ezin zuen CC.OO. bezain mugimendu handi baten kontra egon, honekin elkarlanean aritu behar zen. ETA-Berriren helburua, CC.OOren sena aldatzea zen, hauek PCEn nagusitasunarengatik aska zitezen

---

35. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 49 orr.

36. IRIARTE, José Vicente. *El Movimiento Obrero en Navarra (1967-1977)*. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1995; 60-63 orr.

37. VOK, "Vanguardia" hitza erabiltzen badu ere, ez dugu pentsatu behar ideologia marxistaleninista zutenik.

38. IRIARTE, José Vicente. *El Movimiento Obrero en Navarra (1967-1977)*. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1995; 63-65 orr.

39. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 51 eta 68-69 orr.

40. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 72 eta 96-99 orr.

eta mugimendu iraultzaile klandestino bat bihur zitezten. Izan ere, ETA-Berrik 1968.ean leninismoa deskubrituko zuen, justu tendentzia horretako mugimendu asko sortzen ari zirenean. Aldi berean, CC.OOren zuzendaritza komunisten azpian, eta ez burgesia ttipiaren azpian egon behar zela esaten zuen ETA-Berrik. ETA-Berri, hurrengo urtean *Komunistak* izatera pasatuko zen, beraz abangoardismoa gehiago indartuko zen erakundearen baitan. Hau Javier Villanuevak baieztatzen du: "Garai horietan, sektarismo ugari zegoen baita larregizko abangoardia-keria"<sup>41</sup>. Hau da, talde bakoitzak, bere burua abangoardiatzat hartuko zuen eta horretarako "abangoardia" zuen beste taldeei zilegitasuna kendu behar zien, izan ere, norberarena zen benetako alderdi marxista-leninista eta ez besteena. Horregatik, askotan alderdi ezberdineko militanteen arteko harreman pertsonalak zailak izaten ziren<sup>42</sup>. Hau gehiago nabarmenduko zen 1968.ean ETA-Berrik ordu-ra arteko eklektizismoa utzi egingo zuenean eta haren ordeztu leninismoa hartuko zuenean<sup>43</sup>.

1970.ean EMKk, jadanik Mugimendu Komunistaren izenarekin, argi eta garbi CC.OOren aldeko hautua egingo du<sup>44</sup>. 1970. urteko azken hilabeteetan, EMKren argitalpenetan, "Komite" hitza desagertzen hasiko da, eta honen ordeztu, "Komisioak zuzendaritza iraultzaile baten menpean" bezalako espresioak agertzen hasiko dira. "Komiteak" agertzen badira, Komisioetan sartu behar izango diren erakunde bezala hitz egiten da haietatik. Aldi berean, alderdi marxista-leninista baten lana sindikatua erabiltzea dela esten da, sindikatu horrek masen kontzientzia goratu dezan, eta horrela langileak botereaz jabetzea lor dezaten<sup>45</sup>. Honela kapitalismoaren barnean langile kontrabotere baten existentzia egon daitekeenik alde batera uzten du Mugimendu Komunistak. Izan ere alderdi marxista-leninista batentzat, garrantzitsuena Iraultza bidez boterea hartzea da, eta Estatu kapitalista, Estatu sozialista bategatik aldatzea, ez Estatu kapitalistan eragina izatea. Kontsigna ezagun batek zioenez "Botereaz beste, gainontzeko dena ilusioa da"<sup>46</sup>. Halere, Mugimendu Komunistak, lan sindikalari garrantzi handia ematen zion, izan ere bere militante gehienak langileak edo langile mugimendutik pasatutakoak izan dira<sup>47</sup>.

1969.ean inoiz baino modu nabarmenagoan, Enpresa Juradunen arazoa agertuz joan izan da. Izan ere, frankismoak eskaintzen zuen kargu apurrak aprobetxatzea ala ez, hori zen kontua. PCEk 1966.etik zeraman Sindikatu Bertikalean parte hartzen, eta 1969.ean bira bat emango zuten. Izan ere, ordurarte, PCEk

---

41. Javier Villanuevarekin elkarrizketa, 2005ko abendua, Gernika (Bizkaia).

42. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia)

43. *Zutik* 56. zenbakia 1968.eko Apirila

44. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 145-146 orr.

45. *Movimiento Comunista: Zer Egin?* 3 eta 7 zenbakiak. 1970. urtea/ IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 146 orr.

46. Aipu hau, bai Josif Djugaxvili Stalinekin zein Mao Tse Tungek erabili izan dute.

47. Javier Villanuevari eginiko elkarrizketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia).

eta CCOOk Lokailu Sindikalak eta Enpresen Juradunak babesten zituzten, langile mugimendua klandestinitatekin ateratzeko modu egokia zelakoa. Komunistak taldearen arabera, ez zitzairen Juradunei boikot osoa egin behar baina bai Juradun horiek nahi bezalaxe erabiltzen saiatu.

1969.ean ordea, PCEk eta talde guztiek jarrera aldaketa bat izango zuten eta Juradunen dimisioak eskatzen hasiko ziren. Izan ere, 1969.eko Otsaileko grebak izandako porrota Komisionen eta Komiteen arabera, Enpresako Juradunek izandako paper oztopatzailearengatik izan zen. Gainera, 1970.ean beste gertakizun bat emango zen: Burgoseko Prozesua, non erregimenak ETAko 16 militanteen aurkako prozesua hasi zuen eta 6ri heriotz zigorra ezarri zien. Hala ere, langile mugimenduek protesta latzak egin zituzten Euskal Herrian, eta kasu batzuetan protesta horiek mundu osora zabaltzen ziren. Honek eta honen ondorio bezala etorri zen salbuespen egoerak langileen eta aparatatu frankistaren arteko behin betiko apurketa bat ekarri zuen. Beraz, frankismoari egindako boikota arlo guztietara zabaldu zen, baita Enpresen Juradunen boikota eskatzera ere. Mugimendu Komunistak, (izen hau 1970.etik aurrera erabiltzen hasiko ziren) 1971.eko hauteskundeak boikotatu egingo zituen, izan ere, Mugimendu Komunistaren ustez, honela, Lokailu Sindikalak eta Enpresa Juradunen postuak aske utziz. Sindikatu Bertikalaren goi aparatatuak zokoratu ahal izango ziren. Izan ere, sindikatu eta alderdi guztiek boikotatu zituzten, eta boikotak enpresa handietan arrakasta handia izango zuen, ez ordea txikietan. Mugimendu Komunistak boikot honen arrakasta ospatu egin zuen, halere "base erakunde indartsu baten faltak, toki askotan boikota pasiboa eta erarengatik benefizio politikoak ateratzeko gaitza dela erakusten digu"<sup>48</sup>.

1971.etik 1973.era Euskal Herriko langile mugimenduan beste fase bat zabalduko zen, Ibarrek trantsizio fasea deituko zuena. Izan ere fase berri honetan, CC.OOren barruan beste talde batzuk sartuko ziren, hala nola EMK bera, eta CC.OO indartu egingo zen, UGTk zuzendutako proiektu bateratzaile biak desagertu egingo zirelako, bai Enpresa Komiteak zein Aliantz Sindikala, ELA irteterakoan. Izan ere garai honetan, CC.OOren inguruan, PCEk zabalduko eta EMKk babesitutako pertzepzio bat bazegoen, hots, CC.OO mugimendu bat dela erakunde bat baino eta aldi berean langileria batzen duen (edo batu nahi duen) mugimendu bat dela: mugimendu oso bat. EMKk mugimendu oso hau norabide iraultzailean mugitu nahi du eta modu honetanxe, CC.OOren bidez erreformistek langile mugimenduan egin dezaketan indarrari kontra egin. Honela, CC.OO barruko joera iraultzailea indartu nahi da, eta ez hainbeste CC.OOren batasuna, izan ere, CC.OOk bazuen bere biziko indarra, eta erreformistak aldenteak EMKren ustez ez zion kalterik egingo<sup>49</sup>. Hala ere, 1973.eko bukaerarantz, EMKk, bere CC.OOko barruko estrategia aldatu egingo zuen, eta CC.OOren ahultasuna zela eta, CC.OOren barneko batasuna defendatzen hasiko zen beste edozein lehentasunen aurretik<sup>50</sup>. Hala ere, EMKk ezin izan zuen 1974.ean zatiketa ematerik ekidin.

---

48. *La victoria del boicot a las elecciones. Nuestras tareas actuales.* MCEren idatz propaganda.

49. EMK: *Zer Egin?* 31. zenbakia, 1973.eko Maiatza.

50. MCE: *Servir al Pueblo*, 18 eta 22 zenbakiak, 1973.eko Azaroa eta Abenduari buruzkoak.

1974.eko urtea, erabakigarria izan zen CC.OOrentzat; izan ere, bitan banatu bait zen, alde batetik Comisión Obrera Nacional de Euskadi (CONE), PCEk babes-tua; eta bestetik, Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras, ORTEK. LCR-ETA VI taldeak eta EMKk babesturik. Ibarra Güellen arabera separazio hau, botere borrokengatik izan da. Egoerak, 1974.ean Peñas Blancas-eko Bizkaiako CC.OOren Asanblada batean eztanda egin zuen<sup>51</sup>. CECO eta CONEren arteko separazioa Euskal Herri osoan eman bazen ere, Araban eta Gipuzkoan bakarririk iritsi zen oreka batetara, izan ere Nafarroan CONE ez zen existitzen eta Bizkaian minoritarioa zen. CECO ere barne arazoak izango zituen base estrukturatzearen gain, izan ere LKI taldeak CECOren hasierako estrukturaaren gain zalantza handiak izango zituen; eta horregatik Durangaldeko Komisioak ez ziren CECOren sartu 1975.erarte. Banaketa honekin, ordura arte CC.OOk izan zuen erabateko hege-monia apurtu egingo zen, eta bi talde bereiziko ziren, batzuek erreforma prestatzearen aldekoak izango zirenak, eta besteak, erreforma horien etsai; eta problema-tika honi loturik beste mota batetako arazo bat azaltzen zaigu, hau da, konfrontazio estrategiak erabili behar diren ala ez, eta erabiltzerakoan nota mugatu behar diren. EMKren arabera, banaketa hau gertatu eta gero ez zen gehiago Juradunen eta Lokailu Sindikalen dimisio orokorrik eskatu behar baizik eta exijentzia haiek matizatu egin behar ziren. Ibarra Güellen arabera, CC.OOren funtzioak izaera eta taktika definitzerako orduan ez zegoen PCE eta EMKren arteko ezberdintasun handirik, beraz badirudi zatiketa hau botere borroka bategatik izan zela. CECOren lehen su-froga, 1974.eko Greba Orokorra izan zen zeinetan oposizio erradikaleko alderdiak batu ziren, PCE eta CONE kanpoan geratu zirela-rik. Greba hau, greba politikoa izan zen, hau da, Erregimenaren aurkako greba, zeinetan helburu politiko eta ekonomikoak batzen ziren. Oso testuinguru apropos-ean, Erregimenaren ahulezia nabaria zenean egin zen, eta arrakasta handia suposatu zuen. Erregimenak ez zuen greba honi aurre egiteko estrategia onik erabili, errepresio bortitza erabili zuen, eta modu honetan grebari entzute han-diagoa eman zion. Greba honek egundoko arrakasta izango zuen.

Halere, EMKren birkokatze politikak, non Erreforma Politikoa-erikiko eta beste indarreko postura zabalago bat hautatu araziko zioten, eta 1975.ean, hasieran kontra egon bazen ere, azkenean hauteskunde sindikaletan parte hartu zuen, Juradun "ongileak" eta gaiztoak bereiziz. Izan ere, EMKren beldurra, parte hartzen ez bazuen, "ezker muturreko" taldexka bat bihurtzea zen. EMKren arabera, 1975.ean, aukera legalak aprobetxatzeko baldintzak ematen ziren<sup>52</sup>.

1976.ean eman zen azkenik CC.OOren birbatzea, EMKk ahalegin handia egingo zuen birbatze horretan. Izan ere, birbatzean PCE eta EMKren arteko ezberdintasun handirik ez zen emango, hasieran behintzat (1976.eko Uztailako Asanbladan). Hala ere, laster EMKren ikuspegiak CC.OOren barnean zokoraturik geratuko dira, eta beraz, Erreformaren hasierarekin batera, PCE eta EMKren arteko ezberdintasunak eta tentsioa handituz joango dira, EMKk sindikatu berri bat ESK (Ezker Sindikalaren Konbergentzia) fundatu zuen arte.

---

51. IBARRA GÜELL, Pedro. *El Movimiento Obrero en Vizcaya 1967-1977* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateak 1987; 284-289 orr.

52. MCE: *Servir al Pueblo* aldizkaria, 28 eta 30 zenbakiak.

Garai honetan, mugimendu osoa muturreko maizismo batek jantzia zegoen. Aurreko atalean aipatu bezala, EMKren kanpo erreferentzia Txinako Herri Errepublikari zen eta Txinako Alderdi Komunistak (TXAK) eramaten zuen sozialismoaren eraikuntza eta iraultza ereduak. Aurreko parrafoetan azaldu bezala, askotan, frankismo garaian ezker muturreko taldeak abangoardiakerian erori ziren, askotan kanpoko erreferente horiek euren herrialdean guztiz ezberdinak ziren baldintza batzuetan kopiatu nahian. EMK ez zen salbuespen izango. EMKk Mao Tse Tungek Txinan eramandako Iraultzarako baldintzak uste zuen Euskal Herrian existitzen zirela eta Mao Tse Tungek teoria marxista-leninistari egindako ekarpen guztiak aplikatzea iraultzarako bide bakarra zirela zeritzon. Adibidez, Maok 1949.ean egindako Txinako Iraultzaren ezaugarri antiinperialistak eta antikolonialistak Espainiar Estatuan erabili nahi zituen, hori zela eta Espainia AEBen inperialismoaren "menpeko herrialde"<sup>53</sup> bezala hartuz (Maok Txinan iraultza egin zuenean, Txina Japoniaren menpe zegoen egoera batetatik abiatu zen). Halako irakurketak eta kanpoko baldintzen arabera eraikitako ereduak itsu-itsuan "inportatu" nahi izateak, ez zion batera mesederik egin eta ezkerreko taldeen sektarismoa areagotu zuen, bai eredu berdina zuten taldeen artean, zen beste eredu bat jarraitzen zuten taldeekin, adibidez, sobietarzaletan (SESB sozialismoaren eredu nagusitzat zutenak) eta Sobietar Batasuneko Alderdi Komunista (SBAK) alderdi-eredutzat zutenak). Gainera garai horietan Txinan jazotzen ari zen Kultur Iraultza zela eta, askotan kanpoko gertaerek eta berriek, barrukoek baino arreta handiago jasotzen zuten.

#### 4. MUGIMENDU KOMUNISTA TRANTSIZIOAREN AURREAN

Lehenaldi honetan, Mugimendu Komunistaren taktika, ez bakarrik EMKrena baizik eta baita Espainiako MCErena, nolabaiteko pragmatismo batez jantzirikoa taktika bat zen. Izan ere, MCEko partaideak, baita bertako zuzendaritza ere, oso kontziente ziren Espainiako klase ahaldunak erreforma bat ahalbideratuko zuela eta Iraultza Sozialista ez zela nahi eta nahi ez gailenduko. Javier Villanuevaren hitzen arabera, "gu eta ETA militarra, hauek *Argalaren* influentziarengatik izan ginen Francoren heriotzarekin batera frankismoaren erreforma aurreikusitako genuen bakarrak. Beste denak. ORT, PTE, ETA-PM eta LKI; oso baikorrak ziren, askotan planteamendu irrealak mantenduz"<sup>54</sup>. Izan ere, 1975.eko Liberación aldizkarian, frankismoaren erreforma aurreikusitako egiten da, eta era berean, egoera berri honi aurre egiteko taktika berri bat proposatzen da<sup>55</sup>. Artikulu honetan, Espainiar oligarkiarengatik<sup>56</sup> faxismoa karga bat eta ez makulu bat dela dio, beraz oligarkia horrek herniaren aurrerapenei balazta jartzeko, erregimen parlamentario batetantz jo nahiko zuela esaten da. Izan ere, eskuineko prentsaren eta zenbait poli-

---

53. Trantsizioan irakurketa hau laga eta Espainia "herrialde inperialista" bezala hartuko zuten.

54. Javier Villanuevaren izandako elkarrizketa, 2005eko abendua Gernika (Bizkaia)

55. MCE, "Una nueva táctica". In: MCE, *De Franco a Juan Carlos, el Movimiento Comunista en la Transición política*. Fuenlabrada: Revolución argitaletxea, 1979.eko Abendua.

56. Ikusi etsaia oraindik *oligarkia* dela konkretutan eta ez *burgesia* Honek burgesiaren alderik progresistekin, aliantzak egiteko aukerak zabalduko zituen.



tikariren adierazpenak (Areilza, Garrigues Walker) jasotzen ditu, hauek. "zerbait aldatu, ezer aldatu ez dadin" leloari jaramon egiten diotela ematen duelarik. Fragaren arabera, "Estatuaren oinarria ez da zalantzan jarri behar, zabaldu baizik"<sup>57</sup>. Beraz argi zegoen Estatuaren sektore batzuek politika honi jarraitu nahi diotela, hala ere momentuz erreformaren mugak ez daude oso ongi zehazturik, baina badirudi erreforma honek arrakasta izan zezan, Santiago Carrillok zuzendutako alderdia bereganatzea ezinbestekoa izaren dela erreformistentzat. Aldi berean. patronalaren zenbait ordezkari, datozen zailtasun ekonomikoak gora-behera, krisiari aurre egiteko nolabaiteko ordezkari-tza sistema zilegitu bat beharrezkoa zela uste zuten, baita Sindikatu Bertikalaren kontrola apurtzea ere. Beraz EMKko ordezkariak argi zuten patronalaren taktika, eskuineko (eta "moderazioko") indarren akumulazio bat zela.

MCEk honen aurrean, posizio iraultzaileak erreformistentzat ordezkatzeko arriskua argi ikusten zuen, eta horregatik, ezkerreko indarren akumulazio bat beharrezkoa ikusten zuen. Gauzak honela, momentuz programa iraultzailea baztertu egin behar zen eta programa aurrerakoi bat bakarrik erabili behar zen, Estatuaren oinarriak higatzeko. Izan ere ez zen Iraultza Sozialista bat planteatzen baizik eta beste modu batean esanda, Estatu frankistaren gainditzea, Iraultzarako baldintzak prestatzen joanaz. Izan ere "kontsigna aurrerakoi hauek ekintza positibo bat"<sup>58</sup> ahalbideratuko dutenen konfidantza agertzen du EMKk.

Beraz konpromezuei baietza, baina zein konpromezu? MCEk argi erakusten du beste artikuluko baten PCEk bultzaturiko Junta Democrática delakoa, ez dela inolaz ere aurreko taktika hori eramateko tresna egokia. Izan ere, MCEren arabera, Junta Democrática delakoak, oligarkia lehen paragrafoan esandako itxuraldaketa egiten laguntzen du, bere programaren baitan ez bait da azaltzen Estatu frankistaren suntsipenerako baldintzarik. Izan ere Junta Democrática, MCEren arabera, ez du defendatzen indar errepresiboen deuseztapena, ezta Armadaren demokratizazioa, ezta herrien autodeterminazioa, eta gainera, kanpo politikan Estatu espainiarrak sinatu dituen akordio guztiak onetsi egiten ditu<sup>59</sup>. Hala ere, MCEk ez ditu paktuak alde batera uzten, baldin eta paktu horiek Iraultzak aurrera egin dezan laguntzen badute. Izan ere, Leninek, jada 1920.ean idatzi zuen paktu batzuk onartu egin behar zirela: "Konpromezu oro ukatzea, ideologia kontu bat balitz bezala, umekeria bat da", aurrerago honela zehazteko "konpromezuak eta konpromezuak daude, eta bakoitza onargarria ala ez den zehazteko, baldintzak, ondorioak eta testuingurua aztertu behar dira"<sup>60</sup>. Beraz konpromezuak onartu egiten dira, baina ez Junta Democráticarekin.

---

57. Manuel Fraga Iribarne, 1974

58. MCE, "Una nueva táctica". In: MCE, *De Franco a Juan Carlos, el Movimiento Comunista en la Transición política*, Fuenlabrada: Revolución argitaletxea, 1979.eko Abendua.

59. MCE: "La cuestión de compromisos y el programa de la Junta Democrática". In: *Servir el Pueblo* aldizkaria 36. zkia.

60. Vladimir Iliitx Lenin: *Ezkerreko murturkeria, komunismoaren haurtzaro gaixotasuna*. Erdarazko izenburua, *El izquierdismo: enfermedad infantil del comunismo* da. Egile honen jakitetan, ez dago euskarazko itzulpenik.

1975.eko MCEren I. Kongresuan aukeratua izan zen zuzendaritzak ere, antzeko ideiak erabiliko zituen. Izan ere, ideia hauek, Mao Tse Tunggen Fronte Batuaren teoria politikoarekin bat datozen, baita ere Maoren kontraesanen legearekin, hots, kontraesanak mota ezberdinetakoak direla, etsaitasunezkoak eta ez etsaitasunezkoak, lehenak herriaren (proletalgoa eta klase sozial lagunak) eta bere etsaien artekoak: eta bigarrenak herriaren barnakoak. MCEk kontraesan hauek aztertu egiten ditu, eta lehen kontraesan etsaitasunezkoa beraz, garrantzitsuena, frankismoaren aparatukoaren eta oligarkiaren eta herriaren artekoa dela dio. Horregatik MCEren ustez ez da zuzenean Proletari Iraultza batetara jo behar, izan ere, estrategia hau ez zen egokia izango. MCEren arabera, garai honetan, frankismoa suntsitzera joan behar da, Herriaren Fronte Batu baten bidez. Honela azaltzen zion Javier Villanuevak egileari:

[...] garai honetan oso posizio moderatua, zabalak, irekia genuen; izan ere fronte anti-frankista bat zuzentzeko gai ikusten genuen gure burua. Hain zabalak ginen, ezen 1976.ean Eusko Jaurlaritzan sartzeko eskaera ere egin genuen! Huteskundeetan jasandako kolpeak aldaraziko zuen gure ikuspegia.<sup>61</sup>

Gaurtik begira, alderdi maoista batek halako joera izana, sekulako burugabezia dela irudituko zaio askori. Hala ere, Mao Tse Tunggen Fronte Batuaren estrategian oinarriturik dago. Izan ere 1949.eko Txinako Demokrazia Berriaren Iraultza garaipenera eramanezkoen estrategia izan zen. Maoren ustez, etsaitasunezko kontraesan nagusiari aurrez-aurre ekin behar zaio, eta horretarako ahalik eta indar herrikoi gehien batu behar dira, herriaren barneko kontraesanak modu baketsuan gainditu ahal dira eta. Maoren ustez, Fronte Batua proletalgoak (Txinako Alderdi Komunistak) zuzendu eta bere aldeko klaseek, hots nekazalgoak, burgesia tipiak eta burgesia nazionalak eratu behar dute herriaren etsaien aurka. Herriaren etsaiak inperialistak, feudalistak, burgesia monopolista, eta oro har atzerakoiak dira. Honela Maok, TXAKek Kuomintang<sup>62</sup> alderdiarekin Fronte Batua eratzea posible ikusten zuen, honek burgesia nazionalaren interesak defendatzen zituelarik herriaren interesekin bat egiten zuenean, (Sun Yat Sen eta bere "Herriaren Hiru Oinarritzako Printzipioak"), baina 1927.eko kolpearen ostean, Kuomintang Xiang Kai Txeken zuzendaritzaren azpian, alderdi atzerakoi eta antikomunista bihurtu zenean (hau da, herriaren etsaien aldera pasa zenean), Kuomintangen aurkako fronte bat bilatu zuen; Martxa Luzea egin bitartean eta gero ere bai, Txinako nekazari, artisau, gutxiengo etniko eta abar konbentzitzen, hauek bait ziren proletalgoaren bidaideak. Hala ere, 1936.ean, Japoniak Txina inbaditu zuenean, Kuomintang, berriz "herrikoia" izatera pasatu zen (benetako etsaia Japonia zelako), eta behin japoniarrei guda irabazita, etsaia bihurtu zen azken aldiz eta Guda Zibilean Iraultzak garaitu egin zuen. Hala ere, MCEk gauza bat ahanzten du

---

61. Javier Villanuevarekin izandako elkarrizketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia)

62. Kuomintang; Txinako Alderdi Nazionalista Herrikoia. Sun Yat Senek sortu zuen alderdia izan zen, printzipio abertzale eta errepublikarrekin. Hala ere Sun Yat Sen hiltzean, gero eta joera eskuindarragoa hartuko zuen, eta Maoren TXAKen oso aurkako jarrera izan zuen, Japoniaren inbasioaren aurrean komunistekiko aliantza sortzearen gaineko zalantza handiak izateraino. 1945-49eko Guda Zibilean, TXAKk irabazi eta gero, Kuomintang Taiwan irlan gorde zen, eta han bere errejimena mantendu zuen.

hemen, Maok teoria hau, Txinako egoera ez-industrialarengatik (beraz proletargoaren indar ezarengatik) sortzen duela, eta beraz, beste klaseekin, batez ere nekazalgoarekin elkartzeko beharra zuela (garai horretan, Maoren Fronte Batua-ren proposamena, Nazioarteko Mugimendu Komunistaren ondare teorikoarentzat sekulako berrikuntza izan zen). 70. hamarkadako Espainian edota Euskal Herrian, proletalgoa oso klase jendetsua da, eta burgesiaren harreman ekonomikoak arras garatuta daude. Horregatik, halako Fronte Batuak, erabat ezberdinak diren egoeretatik inportatzeak, beste alderdi leninisten artean (abertzaleak edo ez abertzaleak) "erreformista" eta "oportunista" izengoiti desatseginez ezagutua izatera ondorioztatu zuen MCE<sup>63</sup>.

1975.ean bildu zen MCEren Lehen Kongresuan, Komite Zentralak ere, antzeko azterketa bat egin zuen, frankismoaren barreneko indarrak, inobilista eta erreformisten artean banatu zituen. Hauen aurrean, "masa mugimendu demokratikoaren" indartzearen aldeko politika bat proposatzen zuen. Hiru puntutan sakondu beharko zen estrategia hau: lehena, askatasun demokratikoak lortzean, bigarrena, faxismoaren aspekturik gorrotagarrienak suntsitzea, honela langileriaren kontzientzia igo dadin, eta hirugarrena, faxismoaren aurkako fronte zabal bat eratzea. Hau lortzeko masekin elkarlanean aritzearen beharrezana azpimarratzen da, eta bide legal, ilegal, zein erdi-legalen erabilera bultzatzen da, modu honetan, jendearen aurrean Mugimendu Komunista ezagutarazteko<sup>64</sup>.

1976.ean, ordea argi geratuz hasi zen frankismoaren alderik erradikalenak boteretik at geratzear zedulera; klase boteretsua erregimenari Europako demokrazia burgesen onarpena izango forma bat ematen saiatzen ari zelako. Beraz, burgesiak frankismoaren eboluzioa onartzen duenez gero, MCEren estrategia, eboluzio horren orde herriaren eboluzioa inposatzean oinarritu beharko zen<sup>65</sup>. Beraz herri plataformak indartu beharko ziren. Eboluzioaren aurrean, apurketa demokratikoaren aldeko hautua egiten zen.

1976.ean ere, MCEk Plataforma de Coordinación Democrática taldearekin bat egitea proposatu zuen. Izan ere, MCEren arabera, Plataforma honek demokraziaruntz igarotzeko programa egokia proposatzen zuen. Hau da *haustura demokratikoarekin* koherentea den programa bat. Izan ere, 1976.eko *Servir el*

---

63. Mario Onaindiak bere memorieta kontaktzen du bera EIAko buru izanda, bere alderdikide batzuen artean, Euskadiko Ezkerra koalizioa EMKrekin sortzeak aztoramena sortu zuela, horien ustez, EMK komunisten arteko alderdirik erreformistena bait zen. Mario Onaindiaren autobiografiazko *El aventurero cuerdo* liburuan kontsultatu daiteke. Hala ere, "kanpoko modak inportatzearen" "gaixotasun" hori ez zuen MCEk bakarrik, garai horretan ezker mutur osoan zabalduak gaitz bat izan zen. Gaitz honen iturriak, alderdi bakoitzaren eredu sozialistari gogokoena idealizatzean eta bere eredia zuzen-zuzenean inportatu nahi izatean zetzan, egoera konkretuaren analisi konkreturik egin gabe. Egia esan, Euskal Herrian, gaixotasun hori zabalduago zegoen Estatuan zehar antolatzen ziren indarren artean, indar abertzaleen artean baino, izan ere, azken hauek kanpoan erreferenteak izan bazuten ere, kanpoko zuzenean imitatzeke joerarik ez zuten erakusten, euren Iraultza, *Euskal Iraultza Sozialista* zela argi zutelako. Faktore abertzale horrek, nolabait, herriarekiko (euskal gizarterekiko) hurbilago egotea ahalbideratu zieten, erreferentzia exotikorik gabe.

64. MCEren 1. Kongresuan, Komite Zentralak aurkeztutako informea.

65. *Servir al Pueblo* 47. Zenbakia, 1976.eko Urtarrila.

*Pueblo* aldizkarian aurkitutako artikulu baten agertzen zen bezala; Coordinación Democrática taldeak amnistia, alderdien legalizazioa, adierazpen askatasuna eta nazioen askatasun maila bat defendatzen zituen. Hala ere, demokraziaren aldeko zenbait gauza faltan botatzen ditu MCEk, adibidez errepublika ez eskatzea (Estatu forma aukeratzeko erreferendum bat eskatzen zuen), autodeterminazioa ez eskatzea, eta neurri ekonomiko aurrerakoirik programan ez jartzea. MCEk, "haustura itunduaren" aurkako joera hartu zuen aparatu frankistarekin ezin bait zuen inolako itunik egin. Hau da, eboluzio frankista eta haustura osoaren arteko bidea arbuiatu egiten da, frankismoarekin konpromezuak egitea izango litzateke-elako. Honegatik haustura demokratikoaren aldeko indar guztiak batu behar ziren, bai Espainia osoko mailan zein nazionalitate bakoitzean<sup>66</sup>.

Suárezen erreforma politikoan ikusi zen oposizioko alderdi batzuek, Gobernu monarkikoarekin itunetan sartzeko prest zeudela. MCEk jarrera hori gaitzetsi egiten zuen, horrela ez zela frankismoa erausten esanaz, kontrakoz, sendotu egiten zela, zilegitasun handiagoa ematen bait zioten. Are okerragoa zeritzoten, horietako alderdi batzuk, Coordinación Democrática taldean egoteagatik, askatasunik gabeko hauteskunde partzial batzuei zilegitasuna ematea.

Erreforma Politikorako Oinarrizko Legea (Gorte frankistetan) onartua izan zenean, MCEk aurkako jarrera hartu zuen. Izan ere, MCEren ustez, lege hau boikotatu egin behar zen, eta modu honetan, Gobernu frankista politikoki zokoratu<sup>67</sup>. Izan ere, MCEren ustez erreferendum horretan parte hartzea, Gobernuari zilegitasuna ematea zen, bai alde zein kontra egiten bazen, Gobernuak aurreikusitako gidioetan sartzen bait zen. Izan ere, Erreferendum honekin batera, hauteskunde batzuen deia zabaltzera zihoalakoaren zurrumurrua zabaldu zuen Suárezek; oposizioko alderdi moderatu askok legezkatzea nahi omen zuten hauteskunde horietan parte hartzeko. Alabaina, MCEk erreferendum zein hauteskunde antidemokratikoei boikota egiteko deia zabaldu zuen. Urte horretako Abenduan, Gobernuak; alderdi ezberdinak legalizatzeko negoziatze-komisio bat egingo zuela zabaldu zuen. MCEk komisio hori boikotatzeko deia zabaldu zuen, izan ere, komisio hori ez bait zen inolaz ere demokratikoa, Gobernuaren erreprezio legeei zilegitasun handiagoa eta babes politikoa lortzeko egina bait zegoen<sup>68</sup>. Honen aurka, MCEk ezkerreko batasun antifrankista bat proposatzen zuen<sup>69</sup>.

Hurrengo urteko hauteskundeen aurrean, MCEk posizio kritikoa hartu zuen. Izan ere, MCEren arabera, hauteskundeak ez ziren guztiz askeak, alderdi batzuk legez kanpo bait zeuden eta zirkunskripzioen arabera legea oso desorekatua bait zen. EMKrentzat hauteskunde hauek antidemokratikoak ziren, hauteskundeen osteko erregimena ez zelako demokrazia burges bat izango, faxismoaren hur-

---

66. Euskal Herrian, Euskal Herrikoi Batzarra sortuko zen, EMK, KASEko indarrak, ORT eta karlistak biltzen zituelarik.

67. MCE. "¡Boicot masivo al referéndum antidemocrático!" In: *Servir al Pueblo* aldizkarian agertutako artikulua, 64 zenbakia, 1976.eko Azaroa.

68. MCE. "Por la Unidad de la Izquierda". In: *Diario 16* egunkaria, 1976.eko Abenduaren 21.

69. MCE. "Por la Unidad de la Izquierda". In: *Diario 16* egunkaria, 1976.eko Abenduaren 21.

bileko erregimen bat baizik. MCEren arabera, ezkerreko alderdiek hauteskunde hauetara batera joan beharko zuketean, nazionalitateetan autonomia eta autode-terminazioa eta Estatu osoan federalismoa errepublika eta demokratizatze osoa eskatuz. MCEk ez zien hauteskunde hauei aparteko garrantzirik ematen, demokratiakoak ez zirenez, benetako garrantzia oraindik masa borroketan zegoela esaten bait zuen. Aldi berean, ezker muturreko joera indibidualistak kritikatu egiten ditu artikulu honetan eta Euskal Herriko borroka goraiatu, eskuinaren aurkako oso tresna garrantzitsua bat zen<sup>70</sup>.

MCE 1977.eko Uztailaren 21ean legalizatuko zen. Hala ere, legalizazio hau ez zuen ospatu, ezkerreko alderdi guztiak ez bait ziren legalizatuak izan<sup>71</sup>. Segituan, ezker erreformistak eta sindikatuak Gobernuarekin Moncloako Itunak sinatu zituen eta horrekin batera, MCEk Moncloako Itunen aurkako deia luzatu zuen. MCEren arabera, jada ez zen Gobernuaren eta eskuinaren aurka egon behar, ezker erreformistaren aurka ere bai. Horrexegatik, MCEren aburuz, Moncloako Itunek ezker iraultzailearentzat, desafio berriak piztu zituzten. Beraz MCEren arabera, Moncloako Itunak gertatu eta gero, apurketa berri bat eman zen, ezker erreformista eta iraultzailearen artean<sup>72</sup>. Izan ere, Erregimenak, PCE alderdia legalizatuta eta sindikatuarekin adostasuna lortuta, bere zilegitasuna zabaltzeko operazioa arrakastaz burutu zuen, ordura arte oposizioa izan zen zati handi bat integratzea lortu bait zuen. Beraz “demokrazia” labela lortzeko bide onetik zihoa- la ematen zuen<sup>73</sup>.

Hurrengo urtean, 1978.ean, MCEk bere Bigarren Kongresua burutuko zuen Bilbon. Aurreko gertaera guztien ostean bere ildo politikoa aldatzeko premia sentitzen zuen Mugimendu Komunistak. Martxoaren 21ean *Egínen* azaldu zuten bezala, Kongresu hau Euskal Herrian egiteak sinbolismo berezi bat zuen, izan ere, MCE Euskal Herrian sorturiko talde bat denez gero, Bigarren Kongresua Bilbon egiteak halako zeresan bat izan zuen; gainera MCEren ustez, Euskal Herrian eman diren borroka ezberdinekiko elkartasuna adieraztearren antolatu zuen Bilbon bere Bigarren Kongresua<sup>74</sup>.

MCEk, bere Bigarren Kongresuan, Lehen Kongresuarekiko egoera erabat aldatu dela dio, orain, erreforma oso sendotua bait dago Espainia osoan. Horregatik bere behin-behineko helburuak aldatu behar izan zituen. Lehenik eta behin, MCEren barne antolaketa hobetzeko deia egiten zen eta aldi berean, alderdi barnekoen militantzia hobetzeko deia, bestela marxismo-leninismoa alderdiaren

---

70. *Servir el Pueblo* 1977.eko Ekaina.

71. MCE. *Nota del Movimiento Comunista respecto a su legalización*.

72. MCE. “Nuevas responsabilidades para la izquierda revolucionaria”. In: *Servir el Pueblo* aldizkaria, 86 zenbakia, 1977.eko Azaroa.

73. Europan eta bai Estatu barruko sektore askoren artean, “demokrazia” bezala ikustea lortuko zuen, ezker erreformistaren laguntzaz. Noski, aldi berean, Estatuak oposizio iraultzailearen aurka bortizkeria erabiltzen jarraitzen zuen.

74. *Diez años en lucha por el Socialismo* artikulua, *Egín* egunkarian, 1978.eko Martxoaren 21ean.

gida-ideologia gisa arriskuan jarriko zela aurreikusten zuen Kongresuak. Aldi berean, ezker iraultzaileko erakundeen artean fronte zabal baten elkarketa proposatzen zen, Erreforma ezkerretik gainditzeko<sup>75</sup>. Javier Villanuevaren hitzetan,

[...] hauteskundeetan jasandako kolpeak, non erresistentzian guk baino gutxiago egin zuten alderdiek guk baino botu gehiago jaso zituzten eta Euskal Herrian gertatu zen Askatasunaren aldeko martxak, guren ikuspuntua erradikalizatu egingo zuten Kongresu honetan islatzen den bezalaxe. Hurrengo urtean OICrekin izandako elkarketak bira erradikal honi konfirmazioa emango zion.<sup>76</sup>

Abenduan emango zen Konstituzioaren inguruko erreferendumean abstenitu egingo zen. Izan ere, honetarako, 1976.ean eman zen Erreferendumaren inguruko arrazonomendu berdina erabiliko zuen, hots, erregimenari zilegitasuna ez emateko gogoia. MCEren hitzetan "Gobernuak baieztatu eta parte hartzea (baieztatu eta ezeztatu) zenbatuko ditu. Horrexegatik, gure nahia, bi multzoak ahultzea da, ez bat soilik". Horregatik, Konstituzioak, baldintza demokratiko minimoak batzen ez zituen eta testuinguru antidemokratiko baten planteatua izanenez gero, MCEk eta EMKk ezeztatu eman zioten<sup>77</sup>.

## 5. EMK-REN PRAKTIKA TRANTSIZIOAN ZEHAR

EMKk, gora behera batzuekin, aurreko programa jarraituko zuen Euskal Herrian, hala nola, politika maoista batekin Fronte Batua bilatzen. Hori dela eta, lehen urteetan, muturreko irtenbideak bilatzeari muzin egingo zion. Honen adibide da, 1976.ean Leizaola lehendakariari idatzi zion karta batean Eusko Jaurlaritzan sartzeko eskaera egin izana<sup>78</sup>. Garai horretarako atera zen eskuliburu batean, EMKk honela laburbiltzen zuen bere taktika, "nahiago dugu gure programa modu bortitz batean inposatu dadin, baina kontziente gara hori ezinezkoa dela, beraz beste indarrek konpromezu batetara iritsi behar gara, konpromezu hauek gure programa ahalik eta azkarren ezar dadin errazten badute"<sup>79</sup>. Horretarako, beste behin, EMKk, Estatuaren aparatua atzerakoia bakartzeko deia egiten du; baita oposizioan tinko aritzeko deia. Beraz EMKk haustura demokratikoaren aldeko deia egiten du, bai masa mobilizazioen bidez, zein batasun sendo baten bidez. Bestela, Gobernuaren alternatiba erreformista gailenduko zelaren beldurra zabaltzen du EMKk, alternatiba honek benetako irtenbideak hartzeari uko egingo

---

75. MCEren Bigarren Kongresua: *Informe del Comité Central Saliente al II Congreso del Movimiento Comunista*, 1978.eko Martxoan, Bilbon.

76. Javier Villanuevaren izandako elkarrizketa, 2005ko abendua Gernika (Bizkaia).

77. MCE. "Contra la Constitución y el Referéndum de Suárez, ¡Abstención!". In: *Servir al Pueblo* aldizkarian, 108 zkia., 1978.eko Urria.

78. LÓPEZ ADÁN, Emilio, "BELTZA" eta JIMÉNEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos. *Organizaciones, sindicatos y partidos ante la transición. Euskadi 1976*. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1989; 321 orr.

79. LÓPEZ ADÁN, Emilio, "BELTZA" eta JIMÉNEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos. *Organizaciones, sindicatos y partidos ante la transición. Euskadi 1976*. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1989; 125-140 orr.

diolarik. Era honetan, eskuineko indarren akumulazioari (erreformaren inguruan), ezkerreko indarren akumulazioa (hausturaren inguruan) proposatzen du EMKk. EMKk, arazo nazionalan, Hego Euskal Herrirako autonomi Estatutu bat proposatuko zuen, autodeterminazio eskubidea jasoko zuena, eta era berean, Espainian, federalismoa. EMKk, Euskal Herriaren autonomia galtze progresiboarekin, batez ere Francoren errejimena irauten zuen bitartean, zeinek Euskal Herriari autonomia osoa kendu izan zion, oligarkiaren asmoak lotzen ditu. Modu honetan, Nafarroarekiko politika euskaltzalea proposatzen du, baita helburu hauek lortzeko ezker abertzale eta ez-abertzalearen arteko batasuna ere. Helburu horrekin joango zen 1977.eko Ekaineko hauteskundeetara, ETA-PMren hurbileko alderdia zen EIArekin: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Euskadiko Ezkerra koalizioa eta Nafarroan Unión Navarra de Izquierdas koalizioa. Koalizio hauek, diputatu bat (Patxi Letamendia "Ortzi") eta senatari bat (Juan María Bandrés) lortuko zituzten Gipuzkoan. Koalizio hau EIArekin egiteko arrazoiak Javier Villanuevak ematen zizkidan: "Guk lan egiten genuen eta eurek ordea herriarengana heltzeko boterea zuten, ETArek ondorengo zirenen irudia aurkeztu ahal zutelako. EIA eta EMK elementu osagarriak ginen, hala ere, urte batzuk geroago EIAko batzuen sektarismoak eta gure ezkerrean birak apurtu egin zuten koalizioa"<sup>80</sup>. Alvaro Gurreak ere antzeko irudi bat deskribatzen du: "Bai haiek zein gu indartsuak sentitzen ginen eta biekin genuen EE dominatzeko eskubidea gurea zenaren ustea; haiek herrian entzute handia zutelako, eta guk, barne antolaketa sendoa genuelako. Erabaki bat hartu eta botoi bati sakatuko bagenio bezala, ehunka militante berehala hasten ziren lanean!"<sup>81</sup>. Hala ere, ez dugu pentsatu behar EMK oso mugimendu txikia zenik "Behin Bermeon militanteen afari bat egin genuen eta ehun pertsona azaldu ziren, eta Algortan horrelako zerbait ere gertatu zen"<sup>82</sup>.

EMKk garai hauetan jadanik ez zuen lehen urteetan uste bezala Espainiaren AEBen menpeko "herri menderatu" bat zenik uste, Espainia jadanik inperialista bezala ikusten zuen, beraz, ez zuen sinesten burgesia nazional bat zenik. Hala ere, honek ez du esan nahi Espainiarekiko ukapen sentimenduak zeudela EMKn, baizik eta euskaldunon nazio askatasunak, Espainiako Errepublika Sozialista Federal batean lortu zitezkeela uste zituen; "Beltzaren" liburuan zioten bezala, "Euskadi askeak ez du Estatu euskalduna esan nahi"<sup>83</sup>. "Beltzaren" liburuan, EMKkoek, joera independentistak justifikatzen badituzte ere ez diote hauei zaleztasun handirik. Izan ere, Euskal Herriaren bateratasun handiena erakusten duen kantua Gora Euskadi *Asktuta!* dela diote, frankismoaren izaera ultrazentralistarengatik. Beste alde batetik, langileen klaseak euskal arazoarengan kontzientzia irabaztea ona deritzo EMKk, honela, langileek ere mugimendu nazionala zuzentzeko beta izango dutelako. Hala ere, aurrerago, EMKk batasun estatala ez dela zertan nazio zantzetan izan behar dio, euskaldunok, Espainiar Errepublika batekin ere gure askatasunak lortzeko bidea izango genuelako. Izan ere, EMKren aburuz, Espainiako lurralde ezberdinen arteko langileen batasunak, herri ezberdi-

80. Javier Villanuevarekin elkarrizketa, 2005ko abendua, Gernika (Bizkaia).

81. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

82. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

83. Ídem.

nen pertsonalitatea eta kultura errespetatuko dituen Estatu bat ahalbideratzen du. Honegatik, EMKren ustez, Estatu bateratua independentzia baino positiboagoa da, halere, Estatu zentralista batek tendentzia independentista justifikatuak sorrarazten dituenek, Alderdi honen iritzian askoz hobe da Estatu deszentralizatu bat eraikitzea, non herri ezberdinek Estatuaren barruan edota kanpoan egoteko erabakia izateko eskubidea izango zuten. Euskal Herria Estatuaren barnean egoten den bitartean EMKren ustez Autonomi Estatutu bat izan behar du; ez II Errepublikakoaren bezalakoa, non Euskal Herriko ordezkariak ahulezia posizio batetik negoziatu zuten, baizik eta Estatutu gaurkotu bat, Euskal Herriak eta Espainiar Estatuak berdinkide negoziatu beharko zutena<sup>84</sup>. Estatutu honek bi arazo kontutan izan beharko luketela esaten du EMKk; alde batetik, euskararen garapena aurrera eramateko gaitasuna eta borondatea izatea, eta bestea, Nafarroarekiko harremana, non eskuin antieuskaldun indartsu bat zegoen, eta horregatik Nafarroari, gainerako herriekiko baino tratu bereziago bat eman behar zitzaien, bertako biztanleriari Nafarroa eta Euskal Herria kontzeptuak elkarrekin bateraezina egin ez zataizkion<sup>85</sup>.

1977.eko hauteskundeak gertatu eta gero, EMK eta EIaren artean ezberdintasunak sortzen hasiko ziren. Hasieran, EMK Estatuko ezker muturreko eta ezker abertzaleko beste indar batzuekin batera Askatasun Martxan parte hartu zuen. Halere, martxa horretan, abertzale erradikal batzuek indar "espainolisten" aurkako jarrera gogorra azaldu zuten<sup>86</sup>, beraz EMK momentuz ez zen KASeko indarrei hurbilduko hasiera honetan. Geroago, Irailaren 8an. Donostian manifestazio handi bat deitua izan zen; autonomia berrezartzearen, askatasun demokratikoen eta amnistiaren alde. EMKk, orduan izan zuen politikarekin bat eginik, manifestazio ofizialarekin bat egin zuen, Espainiako Parlamentuko euskal parlamentariak buru zituela. Hala ere, manifestazioa bitan zatitu zen aurki, ezker abertzale iraultzaileko indarrak, kontsigna erradikalagoekin, manifestazio ofizialaren aurka batu zirelarik. Bi manifestazioek tupust egin zuten Donostiako zubi batean eta bi taldeen arteko oldarkeria eman zen, bi taldeetan zauritu asko emanik. EMKk gogor kritikatu zituen ezker abertzalekoak, "esklusibismoa" eta "probokazioa" leporatuz. "Haiek autodeterminazioa eta independentzia elkarren aurka jartzen zituzten, autodeterminazioa amarru espainolista bat izango balitz bezala"<sup>87</sup>. EMK hasieran ez zegoen oso gustora momentu hauetan ezker abertzaleko indarrekin, "espainolismoa" leporatzen bat zioten, EMKren ustez oso akusazio injustua zena. EMK, alabaina, laster konturatuko zen ezker abertzaleko indarrak ezin zituela aurrean eduki, beraz 1978.eko Martxoko II Kongresutik aurrera, indar hauei hurbiltzen saiatuko zen. Izan ere, EMKren arabera, ezker abertzaleak potentzial iraultzaile handia zuen, eta komeni zen potentzial hori alde batera ez uzten. II Kongresu horrek, Euskal Herrian "joko-zelaiak" definitzen zihoazen artean ospatutakoak,

---

84. Ídem.

85. Honexegatik (beste arrazoien artean) EMKak, Nafarroan EE beste izen batekin aurkeztea proposatu zuen (eta halaxe izan zen, Unión Navarra de Izquierdas, UNAI izenarekin aurkeztu bait ziren).

86. Zer Egin? EMKren aldizkaria.

87. Javier Villanueva (2005ko abendua, Gernika (Bizkaia)) eta Alvaro Gurrearekin (2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia)) elkarrizketak.



EMKri bere "zelaia" definitzen lagunduko zion; erreformismoa ukatuko zuten indarrekin, hausturaren alde zeuden indarrekin. Horrek nahi eta nahi ez, ordura arte balizko aliatuak ikusten zituenengandik aldentzera (jarraian deskribatuko dugun EIAren kasua paradigmaticoa izango zen) eta ezker abertzalearekiko ikuspegia hobetzera eramango zuten.

EIA eta EErekin izandako istiluak, Euskal Kontseilu Nazionala deitutako organu aurreautonomikoarekin hasi ziren. Izan ere, EIAren koalizioa monopolizatzekeo jarrerak (lehen azaldutakoak) hasiera baten "barkatuak" izan ziren, EIAren indar herrikoi handiagoo kontutan hartua izaten bazen. Baina Euskal Kontseilu Nazionalan, EIAk EErentzako zen tokia EMKri laga nahi ez zionean asko haserretu zen EMK, eta EIAri eskusibismoa leporatu zion. Gainera EIAk zeraman eskuineranzko bira, hau da, erreforma gero eta gehiago onartzea eta alderdi handien diskurtsua kopiatzeak, EMKren barruan ezinezona sortu zuen. Eta are larriagoa izan zen EIAk Euskal Kontseilu Nagusiko lehendakariako EAJen hautagai Juan Ajuriage-rriari botua ematean hasitako istilua. Hemen gertatu zen EIA eta EMKren arteko apurketa. Izan ere, EIAk EMK zokoratu nahi zuela uste zuten maoistek. EIAren arabera koalizioa apurtzea EMKren aldebakarreko erabakia izan zen, "Eetik joan zen" eta erabaki hau ez zuen atsekabe handiz hartu; izan ere, EMK aldenteak, alderdi handi moderatuen aurrean moderazio marjin handiagoo emango zion. Kontua zen EMK separatu eta egun berdinean, EIAk EE izena erregistratu egin zuela. Hau ez zuten pozarren hartu ez EMKak ezta ere koalizioan sartu berri eta EMKrekin batera irten zen EKEk<sup>88</sup>. EMKren arabera, EIAk, EE izena, bere politika erreformista justifikatzeko erabili nahi zuen. EIA eta EEren gerorako politika erreformistak (LABetik eta STEE-EILASetik irtetea ELAn sartzeko, Konstituzioaren erreferendumean ezetza defendatzeko argudioak 1979.eko EIAren 11. Kongresua non leninismoa gaitzetsiko zen. Estatutuari baiezkoo ematea, eta azkenik 1981.ean PCerekin batzea eta konfrontaziozko politika bakezaletasunarekin eta kontsentsuarekin ordezkatzeko), EMKri EIAren oso aurka egoteko arrazoiak emango zizkion. Javier Villanuevaren hitzetan: "Ezsisioa eta gero oso harreman txarrak genuen EErekin, guretzat erreformista eta oportunistak hutsak ziren"<sup>89</sup>. Banaketa honen azken kapituluak, EE, jadanik EIAk dominatutakooa, Nafarroan zabaltzea (bertako UNAI errespetatu gabe) eta Kongresuan, Patxi Letamendia "Ortzik" dimititu ostean, EIAko zuzendaritzak, ez dimititzeko eta aulkia hutsik uzteko konbentzitzen saiatzea izan ziren. Izan ere, bigarrenaren kasuan, EEko zerrendetan, Letamendiaren ostean Patxi Iturriotz zihoan, EMKko militantea zena. EIArentzat askoz okerragoa zen hori besterik gabe Letamendia Kongresuan ez azaltzea baino. Halere. Letamendiak dimititu egingo zuen eta bere lekua hilabete bat eta erdiz EMKko Iturriotzek beteko zuen.

---

88. EKE: Ezker Komunistako Erakundea, ezker muturreko erakunde bat, Marxismo libertario kontsejista defendatzen zuena eta Espainiako Organización de Izquierda Comunistaren euskal adarra zena. Joera honen erreferentzia historikoa, 1920. inguruan Alemanian egon zen KAPD alderdia (Alemaniako Langileen Alderdi Komunista) zen, KPD Alemaniako Alderdi Komunistaren ezsisio muturrekoa eta III Internazionalaren aginduen aurkakooa. KAPDren aurka Leninek *Ezkerreko murturkeria, komunismoaren haurtzaroko gaixotasuna* idatzi zuen.

89. Javier Villanuevarekin elkarriketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia). EIAk EMKrekiko apurketa ostean izandako bilakaerak, Erregimenaren erreforma onartzera eta alderdi instituzional bihurtzera eraman zituenak, azalpen hau baieztatzen du.

EMK, herri mugimenduan eta sindikalgintzan presio handia egiten saiatu zen eta erakunde askotan indar handia izatea lortu zuen. Aldi berean, toki askotan kontutan hartzeko babesu zuen, nahiz eta orokorrean, alderdi txiki bat izan. Indar hau erradikalismoaren estrategiarekin lortu zuen EMKk, sektore zanpatu denak defendatzen urrutieneko joaten saiatu zen EMK. Alvaro Gurrearen hitzetan "Ero batzuk ginen. Ez genuen oso argi estrategia horrek nora eramango gaituen baina hala ere guk gureari eusten genion"<sup>90</sup>. Hala ere, Gurreak ez du uste luzera estrategia hori ona izan zenik, "irteerarik gabeko bidezidorrera eraman gaituen. Gainera gure eraginpeko sektoreetatik at, ez genuen indar handirik lortu, ezker abertzalearen erradikalismoa askoz ere erreala goa zelako. EMK, 80.eko hamarkadan alderdi antifrankista bat izan zen, jadanik frankismorik ez zegoenean"<sup>91</sup>. Erradikalismo eta espontaneismo hori, nolabait Txinako Iraultza Kultural Proletarian TXA-Kek izan zuenarekin konpara daiteke; bi alderdiek azkenerarte heltzeko helburua, nolabaiteko irudimen politiko handia, ideologia zehatz bat (gainera berdina zuten bai EMKak zein TXA-Kek: marxismo-leninismo Mao Tse Tung Pentsamoldea) eta erradikalismo handia, bai hitzetan zein ekintzetan bait zuten<sup>92</sup>. Egia da, ezin daitezkeela inondik inora ere EMKren ekintzak eta TXA-Kenak berdindu (batez ere, batek munduk herririk handiena kontrolatzen zuelako, Txina; eta bestea berri txiki eta Estaturik gabeko batetako, Euskal Herriko alderdi oso txiki bat zelako). Izan ere, EMKren eta TXA-Ken arteko paralelismo hau ezartzea, oso puztua bada ere, modu baten eredu bat jartzearren eta pentsamendua laguntzearren ezarri du eredu hau egileak<sup>93</sup>.

1978.eko Konstituzioa eta 1979.eko Estatutua, biak abstentzioarekin errefusatuko zituen EMKk. Errefusatu honek, ezker abertzalearengana hurbilduko zuen EMK eta baita LKI trotskista ere. Izan ere, EMK eta LKlren artean, ezker muturrekoak izan ziren beste indar batzuekin gertatu ez zen bezala (ORT, PTE), mugimendu herrikoietan egiten zuten lan gogorak, ezker abertzaleko militanteekin elkarlana sustatuko zuen. EMK 1980.ean bakarrik joan zen hauteskundeetara, baina geroago, HBrentzat eskatuko zuen botua. EMKk, LKI eta HBrekin manifestaldi eta ekintza asko egingo zituen hemendik aurrera, horietako bat, eta esanguratsuen Nervaceroko greba eta Euskal Legebiltzarraren hartzea zelarik. Hala ere, EMK eta HBren arteko harremanak ez ziren beti onak eta lasaiak izaten. Izan ere, Herri Batasunaren baitan, alderdi nagusia beste abangoardiazko alderdi marxista-leninista bat zen, HASI (Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea). Alderdi honek EMKk bezala abangoardia izateko nahia zuen, eta honela, abangoardia bien artean, besteari zilegitasuna kentzeko nahiak izaten ziren. Gainera bazegoen beste gauza bat, leninismoaren barneko HASIren apustua, sobietarzaletasuna zen, hau da, orduko SESBi babesu ematen ziola, eta SBA-Ken alde

---

90. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

91. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

92. Egia da EMKren ekintza politikoa ez zela TXA-Kenarekin inolaz ere parekatu, baina erradikalismo honen adibide bezala, Nervaceroko greba eta Euskaldunako borrokaldira jar ditzazkegu, non EMKk paper oso garrantzitsua izan zuen.

93. Nik dakidanez, EMK eta 60.eko hamarkadako TXA-Ken arteko paralelismoa ez da historiografian modu sakon baten ikertu.

(Sobietar Batasuneko Alderdi Komunista) agertzen zela maiz. EMK ordea, maoista zen, eta maoismoak aspaldi puskatu zuen sobietar-zaletasuna esan nahi zuen ororekin<sup>94</sup>. Javier Villanuevaren hitzetan, "HBk eta HASIk gure laguntzaren bitartez kobertura politikoa lortzen zuten noizbehinka, eta hori eskertu egiten zuten, halere, eurei gustatuko zitzaien gu ez existitzea"<sup>95</sup>. Alvaro Gurrea urrutiago joaten da "Guk borroka armatua defendatzen genuen baina borroka armatuan egon gabe. Atzera begiratuta, hipokresia iruditzen zait hori"<sup>96</sup>.

Laburbilduz, epoka honetara EMKren historia desilusio batzuen historia dela esan genezake. Izan ere, hasieran trantsizio politikoari irteera aurrerakoi eta positibo bat bilatzeko esperantza handia izan zuen EMKk, baina horiek zapuzterakoan, bai politika handiaren ekintzarengatik, zein EMKren aliantzek porrot egin zutelako, ezin izan zituzten euren asmoak osorik bete. Honek motibatuko zuen 1978.eko politika aldaketa eta geroago, erradikaltze progresiboa. Izan ere EMKren politikaren zuzentasunean, eraginkortasunean edo ontasun etikoan zalantzak izan bagenitzazke<sup>97</sup>, ezin genezake esan politika koherentea egin ez zutenik, autokritika estrategikoa<sup>98</sup> egunean bait zegoen EMKn, analisi zintzok zerabilten. Izan ere, EMKn zerbait ez bazen falta hori militantean konpromezua eta zintzotasuna zen, eta ahalik eta hoberen ideial bati militantzia gogor bat entregatu zioten EMKko partaideek. Honelaxe urte hauetako depresioa pasatuta. 80. hamarkadan indar berriekin agertuko zaigu EMK euskal plazara, batez ere, 1983.eko Kongresuaren ostean. 80.en hamarkadako EMK, urte hauetako EMKren eboluzioaren seme da.

## 6. 1983.EKO ESTATUTUAK ETA HORTIK AURRERA

1983.ean, EMKk beste Kongresu bat burutu zuen eta hemen orduan eramandako politika irauli egin zuen. Izan ere, hemendik aurrera mugimendu aberzalea modu positiboagoan baloratzen hasiko zen. Izan ere, EMKrentzat mugimendu herrikoa, Kongresu honetan definitua geratuko zen bezala, langile mugimenduak eta mugimendu nazionalak osatuko zuten. Hemendik aurrera,

---

94. 1971.eko *Zer Egin?* batean, India eta Pakistanen aldeko guda bat aztertzen da, ikuspegi maoista batetatik. Guda honetan, Txinako Alderdi Komunista, munduko alderdi maoistak EMK barne, eta Txinako Herri Errepublika, Indiaren eta bere babesle SESBen aurka jarri ziren, eta honela AEBk babestu zuen Pakistanen aldeko jarrera hartu zuten. Hau SESBi "sozialinperialismoa" leporatuz justifikatu zuten. Are gehiago, 1980.ean SESBk Afganistaneko Errepublika Sozialista islamiar fundamentalistez babesterakoan Afganistanen esku hartu zuenean, Txina eta maoistak (berri ere EMK tartean) aurka agertu ziren, eta "SESB sozialinperilista eta erreformistaren" argudioa erabili zuten berri ere.

95. Javier Villanuevarekin elkarrizketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia).

96. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

97. Alvaro Gurreak honako hau esan zidan gure elkarrizketan: "Askok esan didate EMKren pape-ra Euskal Herrian oso negatiboa eta gaiztoa izan zela, eta baliteke eurek arrazoia izatea". (Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia)).

98. Ez hainbeste autokritika politikoa, Álvaro Gurreak aitortu zidan. Honela mintzatu zen Gurrea: "Guk ez genion utzi egun batetik bestera stalinista ala maoista izateari, baizik eta Stalinez edo Maoz hitz egiteari utzi genion. Hori, gaurtik ikusita ez zait ondo iruditzen". (Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia)).

mugimendu abertzalea EMKrentzat ez da "kanpoko" aliatu bat izango baizik eta EMKren beste borroka zelai bat. Rosa Olivaresek lau urte beranduago gertatuko ziren Europar Hauteskundeetan honelako adierazpen bat botako zuen. "Guk Euskal Herria defendatzen dugu- baina ez dugu euren Euskal Herria defendatzen, (EAJ, PSOE eta abarrez ari zen), baizik eta langile, iraultzaile eta abertzale zintzoen Euskal Herria". Izan ere, Kongresu honetatik aurrera. EMKren bidaide bakarrak HB eta LKI izango ziren; nahiz eta joera hau arte batzuk lehenago finkatzen hasi zen. Ezker abertzaleko kontsignak bereganatzen hasiko zen EMK; 1989.eko *Zer Egin?* batean, *Que se vayan!* kontsigna azaltzen da, 1978.ean arbuaiatua izan zena, "Espainiako beste herriekin insolidarioa zelako"<sup>99</sup>. Kongresu honetan, aitzitik, EMK MCErengandik banandu egiten da eta beste erakunde independente bat bezala ezartzen da. EMKk, mugimendu abertzalerekiko eta batez ere ETArekiko egin ziren hutsegiteak aipatzen ditu. Kongresu honek, aurrerago Javier Villanuevak aipaturiko 1978.eko Kongresuaren ezkererako biran beste pausu bat suposatu zuen, hala ere HBk eta ETAk abangoardia proletariaren lana egitearen ezintasuna aipatzen du, hauen izaera indeterminatu eta miszelaneoarengatik. EMKk Kongresu honetan argi du erreforma osorik iritsi dela, batez ere PSOEren garaipena gertatu zenetik, beraz beste estrategia baten beharra aipatzen du. Hala ere, berritasun bat du urte honetako Kongresuak; independentziarena. Ordurarte, mugimendu independentistak nolabaiteko paper positiboa jokatu ahal zuenaren konbentzimendua bazegoen ere, independentzia irtenbide desegoki bat bezala ikusten zen sozialismorik gabe bazetorren, eta federalismoaren alde egiten zen. Hemendik aurrera, independentziak eta Euskal Estatu baten existentziak sozialismoaren etorrera ekarri ahal zuela onartzen zen, nahiz eta independentziaren hautu garbirik egin ez. EMKk hau, Euskal Herriak, Iraultza Sozialistaren baitan marko autonomo bat izan zitekeenaren aukera handiak ikusten zituelako esaten zuen.

Garai honetako EMK lehen garaietako eboluzioaren produktu izan zen, hala ere, erradikaltasunari jarraitu izan bazion ere, ideologia aldetik ez zuen izango lehen urteetako maoismoaren zantzurik. Izan ere Javier Villanuevak, II. Kongresuan maoismoarekiko errebisio bat hasi zela dio, eta Alvaro Gurrearen arabera, maoismoa sekula bazterreratu izan ez bazen ere, momentu batetik aurrera, gero eta gutxiago azalduz joango zen.

EMK berri honek normalean bidaide bi izango ditu; HB eta LKI (Liga Komunista Iraultzailea). Lehenarekiko harreman zailak, aurreko atalean ere komentatu ditugu. Halere bigarrenarekin ere harremanak ez ziren oso errazak izan, ez hainbeste ideologiarengatik (EMK maoista zen eta LKI trotskista) baizik eta bien posizio sozialak etengabeko borrokan bizitzera kondenatu zituen. Harreman hauek ez ziren hobetu 80.eko hamarkadaren bukaerara, non LKI eta EMK Zutik alderdi berria eratzeko batu ziren. EMKko Javier Villanuevaren hitzetan, "LKI baino indartsuagoak ginen gu, eta nolabaiteko modu baten, konposizioari dagokionez eta gizarteari buruzko egiten genuen analisei dagokionez nahiko antzeko alderdiak

---

99. *Zer Egin?* aldizkaria, 32. zenbakia, 1978.

izatean; guk euren gainean genuen halako nagusitasunak, inbidia pixka bat sorrarazten zien<sup>100</sup>. LKI eta EMKren arteko batuketaren gainean askoz ikuspegi kritikoa bat eskaintzen du Alvaro Gurreak: "Garai horretarako, EMK eta LKI bukatzeaz geunden talde bi ziren. Bien arteko batuketa 90 urteko senar-emaztearen arteko ezkontza baten antzekoa izango litzateke"<sup>101</sup>. Gero ere itzuliko gara puntu honetara.

Hemendik aurrera; EMKren inguruan halako "mikrokosmos sozial" bat sortu zen, non Alderdiaren inguruko gazte erakunde nahiko potente bat (Euskadiko Gazteria Gorria, gero Kemen izenez ezagutua izango zena) gaztetxeetan indartsua izango zena; kultur mailan indar handia, musika talde garrantzitsu bat (Oskorri), Alderdiarekiko nahiko hurbila zen talde armatu bat (Iraultza)<sup>102</sup>, talde ekologistak (Eguzki eta gero Eki). asanblada feministak... eta abar mugitzen ziren EMKren inguruan. Izan ere, oso influentzia handia zuen EMKak euskal sektore militanteen artean. Jakue Paskualek bere liburuan, "maoistak" aipatzen ditu euskal uni-bertso errebeldeko parte bezala<sup>103</sup>. Hala ere, Alvaro Gurreak matizatu egiten du baieztapen hori. Izan ere, Alvaro Gurrearentzat, "EMKko militanteek, orduan zeuden *punk* eta beste subkulturen gaineko miresmena bagenuen ere, askoz ere "pijoagoak" ginen, langile aristokrazia eta aristokrazia kulturaletik zetozen militanteak ziren gureak, ez lunpenlangilegotik". Adibide bezala Alvaro Gurreak, Sestaoko Naval fabrikako buru sindikala jartzen du, EMKko militantea bera eta karrera ikasten ari zela, Soziologia karrera ikasi zuena<sup>104</sup>. Aipatu beharra dago, Euskal Rock Erradikalaren artean EMKren talde kuttunenak Hertzainak eta La Polla Records izango zirela, ez bata ez besteak ez zuten euren taldekideen artean EMKko militanterik, baina militante batzuekin (batez ere Araban) nahiko harreman pertsonala izaten zuten.

EMKren konstante ideologiko bat izango zen hauteskundeetan ezker abertzaleari babes kritikoa ematearena. Izan ere, ezker abertzalea eta EMKren arteko giroa batzuetan ona ez bazen ere, askotan EMKk HB indar iraultzaile bakarra zela ikusten zuen. Modu berean egiten zuen LKI alderdi trotskistak. Hala ere, zuzendaritzen arteko harremanak guztiz onak ez baziren ere, pertsonalki harremanak askotan onak izaten ziren. Hala ere, Gurrearen arabera "dokumentuetan izugarriko sektarismoa zegoen"<sup>105</sup>. EMKk bakarrik ez, MCEk ere babesa emango zion HBri europar hauteskundeetan, 1987.eko eta 1989.eko hauteskundeetan. Izan ere hauteskunde bietan, HBk sekulako babesa izango zuen Espainia osoan zehar<sup>106</sup>, eta hauek botu asko MCE eta LCR alderdietatik etorriko ziren.

---

100. Javier Villanuevarekin izandako elkarrizketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia).

101. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

102. Hala ere, Iraultza eta EMKren arteko lotura ofizialik ez zen inoiz ere ez emango.

103. PASCUAL. Jakue. *Telúrica Vasca de Liberación* Likiniano Elkarte.

104. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

105. Álvaro Gurrearekin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia).

106. 1987.ean botuen heren bat gutxi gora behera, Euskal Herritik kanpo lortuko zuen HBk.

Beste konstante bat, EMKren indar sindikala izaten zen. Izan ere, indar sindikal honek modu askotan, EMK fabrika askotan erradikalena izatera bultzatu zuten. Hala ere, gaurtik estrategia honek badirudi ez duela batere oniritzirik EMKko militanteak izan zirenen artean. Adibidez, bai Villanuevak zein Gurreak estrategia oso erradikal honek luzera militanteak desgastatu egin zituela uste dute. Villanuevak, gasolinaren falta nabaritzen hasi zeneko data ere jarri zuen. NATOren aurkako erreferenduma irabazi ostekoa, 1986.eko Martxoaren 12an<sup>107</sup>. EMKk, sindikalgintzan, batez ere Bizkaian, sekulako pisua izango zuen; Nervace-ro, Euskalduna eta Naval bezalako lantokietan. EMKren estrategiak, oso tentsio handia ekarri zuen 1980.eko hamarkadako krisia eta desindustrializazioa eman zenean.

EMKren bigarren etapa hau aipatu nahi badugu; nahi eta nahi ez EMKren arlo kulturala aipatu behar dugu. Izan ere, lehen aipatu ditugu EMKk musikarekin izan zituen zenbait harreman. Festagintzan ere garrantzitsua izan zen EMKren ekarpena, batez ere Txomin Barullo konpartsarekin zeinek Gurreaken hitzetan

[...] Txomin Barullo demasa zen, *la hostia*. Txomin Barulloek asmatu zituen Bilboko Jaiak. Pila bat asoziazio deitzen genituen gure konpartsara, eta oso modu horizontalean antolatzen genuen dena. Konpartsetako espektakuluetan milaka pertsona bil-tzen genituen, eta gainera, Txomin Barullo bakarrik ez, auzoetan ere pila bat konpar-tsa antolatzen genituen.<sup>108</sup>

Hala ere, EMK zerbaitetan gailendu bada, hori kartelgintza izan da. Asko dira Euskal Herriko kartelik onenak EMKrenak direla uste dutenak. Izan ere kartelgin-tzan, Alvaro Gurrea eta Víctor Allende nabarmendu ziren EMKren barruan. Alvaro Gurreak kontatzen duen bezala, kartelak, 1977.ean hasi zen egiten Euskadiko Ezkerraren kanpainarentzako. Alvaro Gurea kartel egile baino pentsalaria zen "kartel idazlea"<sup>109</sup>. Kartel horiek bazuten elementu berritzaile bat, fotomuntaia. Izan ere, fotomuntaia egiten lehenetarikoa izan ziren EMKkoak. Beste sekretu bat, propaganda aparatua kartelak egiteko zuen askatasuna zen. Izan ere, Gurrea eta Allende ez zuten zuzendaritza politikoaren agindurik jasotzen eta eskuak oso aske zituzten, "hau ez zen gertatzen adibidez, HBn" Gurreak dioenez. EMKren mezu propagandistakoa gogorra eta zuzena zen, toke ironiko batekin, zei-nek EMKren propaganda oso dibertigarria egingo zuen. Gurreak kartel bat du bereziki gogoan, Muguruza hil zutenekoa, eta bere hitzekin horrela azaltzen du:

Josu Muguruza gauez hil zuten eta hurrengo eguneko 8etan kartela pentsatzen hasi ginen. Guk bagenekien zein izango zen HBren kartela, PSOEren eta Gobernuaren aurkakoa. Eta aldi berean, zuir genekien gauza bakarra, Muguruza Santa Bárbara munizioarekin hil zutela, hau da Ejertzitoari munizioa fabrikatzen zion enpresako

---

107. Javier Villanuevarekin elkarrizketa, 2005eko abendua, Gernika (Bizkaia).

108. Álvaro Gurreakin elkarrizketa, 2006ko ekaina, Plentzia (Bizkaia). Alvaro Gurrea pertsona garrantzitsua zen Txomin Barullo barruan.

109. Berak hala esan zidan pertsonalki.

munizioarekin. Orduan ideia bat otu zitzaidan, Santa Bárbara munizioarekin hil zuten Muguruza, orduan nahi eta nahi ez Ejertzitoarekin zerikusia zuen norbaitek hil behar-ko zuen, nahiz eta Ejertzitoa, eta are gutxiago Estatu aparatua edota Gobernua erruduntzeko arrazoirik ez geneukan. Honegatik honako hau egin genuen, fondo beltz batean, bala bat jarri genuen, Espainiako bandera txiki batekin, eta testu honekin: Balas del Ejército contra HB. Bete-beteen asmatu genuen, erruduna Ejertzitoari lotu-tako norbait izan bait zen, Ricardo Sáenz de Ynestrillas.

Egilearen ustez oso kartel imaginatiboa izan zen.

Laburbiltzeko, garai honetako EMKren praxia, abangoardiako alderdi bezala jokatu beharrean abangoardia izan nahi zuen alderdi erradikal bezala jokatu zuen, askotan, ezkerreko muturkeria erabiliz. Askotan gizartearen arlo guztietan egon nahi izan zuten EMKkoek eta muturkeria hori euren galera izan zen, eurak dioten bezalaxe. Hala ere, EMKren ekarpen batzuk ezin dira ahantzi adibidez, kartelena. EMKK, bere akatsekin 80.eko hamarkadako paisai euskaldunaren parte izatea lortu zuen. Hala ere, bere postura eklektikoegiak (erradikalak batzuetan, intelektualak besteetan) bere eragin esparrutik kanpo zabaltzea galarazi zion.

EMKren desagertzea data, 1991. Urtea izan zen, LKI trotskistarekin bat egini- nik alderdi berri bat sortu zutenean, Zutik. Alderdi berri horrek, bere sortzaileek ordura arte izandako politikarekin apurketa bat suposatu zuen, izan ere iraultza proletarioa (alderdi leninista guztien iparrorratza eta are gehiago, izateko arrazoia) alde batera utzi zuten. Alderdi berriaren jardutea, esparru ezberdinetan (emakume borroka, ekologismoa, antimilitarismoa), aurrerapen progresistak lortzea izan zen, beraz, postura askoz ere moderatuago bat izango zuen<sup>110</sup>. Alderdiaren justifikazioa, Erreforma gairatu ezina (1988.eko greba izan zen azken masazko mobilizazio handia, PSOEren Gobernuari min handia egin bazion ere ez zuen sistemaren iraupena zalantzan jartzerik izan) eta 1991.ean SESBen erortek- tak suposatutako kolpeak; aurrerantzean marxismoa modu zorrotzean ideologi- altematiba bezala planteatzea ezinezko egin zutela izan zen. Izan ere paradoxikoa izan zen EMKK historian zehar hainbeste kritikaturako Sobietar Batasuna erori izanak EMKren heriotza markatu izana. Baina gustatu ala ez, Europan “sozialis- mo erreala” (maoistek “errebisionistatzat” zuten hori) kapitalismoari altematiba- rik bazela frogatzen zuen frogua enpirikoa zen. Erorketa hau, herrialde sozialista ohientzako masentzako tragedia bat izateaz gain, Europako ezker iraultzailea- rentzat erreferente baten erorketa izan zen.

---

110. Askotan, horrek kritikak sortuko zizkion (adibidez ezker abertzalearen aldetik), sistemak asumitu zezazkeen aldarrikapenetara mugatu omen zirelako.